

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-12-23
EGUAZTENA
666. ZENBAKIA
16. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Gipuzkoako
bertsolari
onenak Oñatiko
saioan
batuko dira | 11

Euskarazko
pelikula
onenaren saria
eman diote
'Urzulo'-ri | 10

URTEKARIA 2015

Urteari errepasoa hilabeteka | Erdiko orrietan



Eskoriatza epaituko dute
abenduaren 28an | 11



Alberdik aurkeztu du errenuntzia
Bergarako alkate moduan | 7



IDOIA DAVILA



IDOIA DAVILA



AITZIBER ARANBURUZABALA



AITZIBER ARANBURUZABALA

Bertakoak, guztionak

Bisitari asko izan dituzte Arrasateko Santamasek | 4

URTARRILAREN
8AN HURRENGO
ZENBAKIA



Hurrengo GOIENA urtarrilaren
8an, egubakoitza, argitaratuko
dugu. Egun horretan bertan
'Puntua' aldizkaria ere jasoko
duzue Goiena Klubeko
bazkideok. Urte berri on!

Oparotasunaren ikur diren Gabonak iritsi dira

Aisialdirako eskaintza handia prestatu dute datozen egunotarako | 'Herriak'eta 12



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Ikerketen fruituak
- Mikel Lezamizekin kooperatibismoaren gainean

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

EROSKI

ARRASATE

Musakola auzoa z/g
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Eskaintza baliagarria
abenduaren 27ra arte

Bazkideentzat bakarrik

LANGOSTINO
EGOSIAK
30/40



15,45 €/Kg
12,90 €/Kg

2,55€ itzuliko dizugu txartelean

ITSAS
ZAPOA



9,95 €/Kg
8,40 €/Kg

1,55€ itzuliko dizugu txartelean

ESNEKO
ARKUME ERDI,
ENBASATUTA

12,95 €/Kg
11,95 €/Kg

1€ itzuliko dizugu txartelean

SINADURAK



Gora, zuhaitzak! | 5
IBON ARRUIPE



Denboraren zentzua | 6
MAITE IRIZAR



Hurrengo txanpa | 16
MIKEL IRIZAR

DEBAGOIENA 2 | HERRIAK 4 | KIROLA 10 | KULTURA 11 | ESSELAK 11 | NON-ZER 12

EH Bilduk boto gehien lortu arren galera handia izan du, EAJk gora egin du eta Podemos indartsu sartu da

2011ko emaitzekiko, 6.100 boto galdu ditu EH Bilduk Debagoiengan, 1.613 irabazi EAJk eta Podemos-Ahal Dugu 7.885 eskuratu ditu

DEBAGOIENA | UBANE MADERA

Podemos-Ahal Dugu alderdiak eman du ezustekorik handiena Debagoiengan, eta baita Gipuzkoan eta oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Arrasaten, esaterako, lehen indarra izatera iritsi da.

Eta akaso ezusteko horrek eraginda etorri da bestelako alderdiek jasotako ezustekoa ere. EH Bilduk izan du, adibidez, handia, baita Debagoiengan ere, eta bereziki, Arrasaten. Hauteskunde gauean bertan onartu zuten galera hori koalizioako ordezkariak.

PSE-EEk ere onartu du botoen galera eta alderdi berrien indarrekiko ezustekoa adierazi.

Eta indar berriekiko, edo zehatzago, Podemos-en indarrekiko harridura erakutsi du, baita ere, Unidad Popular-Orain Baterak.


Horien kontrara, EAJ pozik dago gora egin duelako, "sinistu ezinik" Eskoriatzako kasuan bertako alkatearen ahotan.

Eta irribarreari eutsi ezinik Igor Urizar zegoen, Arrasateko Baleikeko zinegotzia -Podemos-en oinordekoa-. Pozik zegoen dagoneko hautestontziak itxi aurretik iritzi-azterketek ematen zieten emaitzekin, eta emaitzak eskuartean, haren kide Eva Abuinek berretsi egin du poztasuna domekako "egun historikoa" izan dela esatean.

Gehiengo baten zain

Herriak esan beharrekoa esanda, Espainian etorkizun zail samarra utzi dute emaitzek. Gehiengo oso-rik ez du eskuratu inork, eta alde aurretik alderdi politiko askok mugak jarrita zituzten balizko itunetarako. Alderdi tradizionalen -PP eta PSOE- arteko itunari begira daude, esaterako, Espainiako enpresarien ordezkariak. Horrela ez bada, askoren arteko itunak beharko dira, edo bestela, sinergiak sortu akordio puntualei begira, lantzen diren gaien arabera akordioei begira, alegia.

DEBAGOIENEN EMAITZAK



Emaitzak herriz herri

| 2015 | 2011 |

ARRASATE

PODEMOS-AHAL DUGU	EAJ-PNV	EH BILDU/AMAIUR	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
3.069	2.976	2.415	2.907	4.805	1.567
2.607	741	1.117	423	530	

BERGARA

EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
2.490	3.956	2.436	2.088	1.973	713
1.066	336	481	181	203	

OÑATI

EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
2.339	3.320	1.999	1.881	967	361
556	215	345	73	105	

ARETXABALETA

EAJ-PNV	EH BILDU/AMAIUR	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
1.122	852	1.062	1.732	915	377
539	157	271	123	127	

ESKORIATZA

EAJ-PNV	EH BILDU/AMAIUR	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
595	415	515	855	497	296
462	86	160	79	84	

ANTZUOLA

EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
539	698	346	292	220	100
174	35	43	20	14	

ARAMAIO

EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	UNIDAD POPULAR-IU	PP	PSE-EE
395	578	256	195	122	15
7	11	17	10	33	

ELGETA


EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	PSE-EE	PP	UNIDAD POPULAR-IU
262	377	203	182	103	16
36	13	21	9	14	

LEINTZ GATZAGA

EH BILDU/AMAIUR	EAJ-PNV	PODEMOS-AHAL DUGU	UNIDAD POPULAR-IU	PSE-EE	PP
61	87	32	34	19	2
3	1	1	0	0	

ITURRIA: ESPAINIAKO BARNE MINISTERIOA

XABI VALLINA
EH BILDU



"Jendeak lehenetsi du Espainian aldaketa"

"Horrelako emaitzak ez genituen espero. Ikusi dena da Espainiako hauteskundearen marko barruan sartu direla hauteskunde hauek eta ikusi dela jendeak lehenetsi duela Espainian aldaketa. Euskal Herriarendako txarrak izan diren alderdiek irabazi egin dute eta independentziaren aldeko mugimendua guztiz geratuta geratu da".


JOSE MIGEL URIBARREN
EAJ-PNV



"Seguru aski etorriko dira gure botoen bila"

"Balorazio nahiko ona egiten dugu, Gipuzkoan ere igo egin dugu, 7.600 boto ia irabazi ditugu. Seguru aski etorriko dira gure botoen bila. Gu alderdi serioa gara, eta 1978tik bertan gaude. Oso ezagunak gara eta oso leialak izan gara guztiekin, bai PPrekin, bai PSOEekin... eta orain izan behar bada PSOEekin eta Podemosekin, hor ere leialak izango gara".

EVA ABUIN
PODEMOS-AHAL DUGU



"Beste etapa bat dator orain, argi eta garbi"

"Herriak aldaketa politikoa eskatzen du eta beste etapa bat dator orain, argi eta garbi. Herritar guztiei eskertu nahi genieke emandako konfiantza eta bueltatuko diegu konpromezuarekin eta lan asko egiten. Historikoa izan da atzoko eguna. Orain ikusi behar da zelako mugimendua dauden. Baina egoera historikoa da".


PACO GARCIA
PSE-EE



"Gerta daitekeenaren esperoan gaude orain"

"PSOEek Arrasaten, Euskadin zein Espainian lortutako emaitzak ez dira nahi genituenak. Hauteskundeak irabazi egin nahi genituen, baina beste behin PP-k, zorritzarrez, hauteskundeak irabazi ditu. Orain ezkerreko alderdien arteko itun batetik esperantza dugu, nahiz eta egoera oso konplikatu izan eta edozer gauza gerta daitekeen. Gerta daitekeenaren esperoan gaude".

JUAN LUIS MERINO
UNIDAD POPULAR-ORAIN BATERA



"Aldaketarako aukeran parte hartu gura dugu"

"Harritu egin gaitu indar berriak izan duen emaitzak, bozkatuena izan denak, batez ere, Arrasaten. Guk zerbait galdu dugu. Baina ez hainbeste. Tradizionalki geurea den boto-emileari eutsi egin diogu. Emaitzak ez dira izan uste genituenak izugarritzko zentsura izan duelako IU-k. Mapa oso irekita dago, bada aldaketarako aukera eta geuk ere parte hartu gura dugu".

3D bioeredu pertsonalizatuak sortu dituzte unibertsitatean

Ongietorria eman zaie ikasturte honetan Mondragon Unibertsitatean egongo diren ikasle atzerritarrei

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Pixel Sistemas-ek eta Mondragon Unibertsitateko Ingeniaritza Biomedikoko ikasleek elkarlanean, bizkarrezur baten 3D bioeredu pertsonalizatua garatu dute. Etor-kizunean ebakuntza kirurgikoen plangintza pertsonalizatuagoa egin ahal izatea da helburua.

X izpien bitartez ornoen orde-nagailu bidezko ereduak lortu dituzte ikasleek. Horren ostean, CAD programak erabiliz, ornoarte-ko diskoak emulatu dituzte.

Hurrengo urratsa gauzatzeko, Elgoibarren kokatuta dagoen enpresarekin lankidetzan jardun dute ikasleek. Izan ere, ornoek eta diskoek ezaugarri mekaniko desberdinak dituzte, eta enpre-saren ezagutza erabili dute gogor-tasun desberdineko materialetan inprimatu ahal izateko.

Ikasle atzerritarrei harrera

Bestalde, abenduaren 18an, egu-bakoitza, ikasle atzerritarrenda-ko harrera ekitaldia egin zuen Mondragon Unibertsitateak.



Mondragon Unibertsitate eta etorri den atzerriko ikasle taldea. | MU

Nazioarteko 51 ikasle egon ziren ekitaldian, baina, guztira, 280 ikasle inguru ibiliko dira unibertsitateko ikasgeletan 2015-2016 ikasturtean; 89 truke-pro-grametan egongo dira eta 190ek ikasturte osoa emango dute.

Gazte ekintzailetzari saria

Horrez gain, aipatzekoa da Jose Mari Luzarraga irakasleak mun-

duko gizarte-berritzaileen sare handienaren aitortzea jaso zuela Madrilen abenduaren 17an.

Luzarragak Lidergo Ekintzaileko eta Berrikuntzako graduaren bitartez gazte ekintzaileak sortzeko egin duen ekarpena saritu du Ashoka sareak. Aurrerantzean sarearen babesa izango du irakasleak, bere lanaren inpaktu handitu ahal izateko.

Gabonetan eskaintza zabala egongo da haurrentako eta gazteendako

I.D. | DEBAGOIENA

Debagoieneko hainbat herritan, ohiko ekintzez gain, umeei eta gazteei zuzendutako ekintza ugari egingo dira Gabonetako oporretan.

Txikiendako

Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko ludotekek 3 eta 11 urte arteko umeendako eskaintza zabala dute.

Gabonetako parkeak ere antolatu dira Aretxabaletan eta Bergaran. Aretxabaletako kiroldegian antolatu da eta gaur da hara joateko azken eguna. Bergarako, aldiz, abenduaren 28an eta 29an izango da Labegaraie-tako kiroldegian.

Gazteendako

Gazteei dagokienez, Arrasateko Gaztegunea abenduaren 26an irekiko dute, eta hainbat ekintza antolatu dituzte hurrengo egunetarako. Horietan izena emateko, gazte txokoetara, Gazte Bulegora edo Txatxilipurdira joan behar da. Aretxabaletako gaztelekuak ere izango ditu gazteentzako ekintzak Gabonetan.

Herri bakoitzeko eskaintzaz gain, aurten lehen aldiz Debagoieneko ekintza bateratu bat antolatu da. Goiengazte eguna Oñatin ospatuko da abenduaren 30ean, eguaztana, eta, hain zuzen, bailarako nerabeak elkartzea du helburu.

Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean, hondakin bilketa barik

Egun horietan Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Bergaran eta Elgetan ez da errefusik batuko. Ezta ontzi arinak ere Antzuolan eta Gatzagan. Eta ez dute kartoi bilketarik egingo Oñatin, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan. Saltokiei dagozkien bilketak dira. Ordezko egunak: abenduak 26 eta urtarrilak 2.

Urrezko Bikain Ziurtagiria eman diote Laboral Kutxari

Hizkuntza-gestioaren arloko aitortpen gorena jaso du Laboral Kutxak: Bikain ziurtagiria, Urrezko kategorian. Eusko Jaurlaritzak banatzen ditu ziurtagiriok, eta aurtengo ekitaldia herenegun, abenduaren 21ean izan zen. Ziurtagiri hori lortzen duen lehenengo finantza entitatea da.

Pelikuletan bezala!

NW YOUNG LIFE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND 3.995€

HOMESTAY LINGUISTIC



4 aste FAMILIAN Ingeles intentsiboa!

SEATTLE/PORTLAND 3.795€

NORTHERN CALIFORNIA ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + KANPALDIA

SAN FRANCISCO 3.995€

NW ADVENTURE CAMP



3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO KANPAMENTUAN

SEATTLE/PORTLAND 3.995€

MAINE ADVENTURE



4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO EKINTZAK

LEWISTON/PORTLAND 3.995€

Egonaldia familia batean!
Prezioan dena barne dago!

ADINA:

3. DBHtik
unibertsitate 1. mailara

DATA:
UZTAILEAN

www.summerintheusa.com

Izena eman!

Kalean ospatu dituzte Santamasak herritarrek

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Seber Altube plaza, Jokin Zaitegi plaza, Herriko Plaza eta Laubide plaza gainezka egon ziren urteko azokarik esanguratsuenan. Herritar asko baserritar jantzita eta eguraldiaren laguntzarekin, azokak eta erakusketak

ikusi eta lehiaketetan parte hartu duten postuetan erosten pasa zuten goiza. Kaleko giroa berotzen Arrostaitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariak, Incansables txaranga, Iturengo joaldunak, trikitalariak eta erraldoien eta kilikien konpartsak egon ziren.

Beira puztua

Sabiñe txerriaren inguruan ere hainbat herritar egon ziren. Bere ziki umeak hurbildu ziren Uxarte baserriko txerria ikustera. Laubide plazako animaliek ere txikiaren arreta bereganatu zuten, eta herritarrek harri eta zur egon

ziren Igor Obesok beira puztuarekin egindako lanak ikusten. Ofizio hori izan zen aurtengo Santamas komisiñuak azpimarratu gura izan zuena. Hondarribiko artisaua da Euskal Herrian beira airean puzten duen artisau bakarra.

Postuak ikusi eta Gabonetako opariak erosi ostean, askok eta askok, sagardoa edateko eta taloa jateko aprobetxatu zuten goiza. Eskuz egindako taloak eta txorizoa barruan zuten ogitartekoak izan ziren izarrak eta askok horiek baliatu zituzten hamaiketakoak egiteko.

Argazki galeriak, bideo erreportajeak, eta xehetasun guztiak ikusgai daude *Goiena.eus* atarian.



Baserritarren azokako hainbat postu. | I.D.



Igor Obeso beira puztuarekin lanean. | IDOIA DAVILA



Ardoa edaten, gustura. | I.D.



Txikiak taloa jaten. | A.A.



Barazki, fruta eta herriko postu onenaren lehiaketetako irabazleak. | M.B.



Artisauak euren produktuak erakusten. | I.D.



Arrostaitz taldekoak ikurrin-dantza egiten. | AITZIBER ARANBURUZABALA



Lore Gazteak taldeko kideak dantzan. | I.D.



Neskatila bat pottokaren gainean. | I.D.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailletako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.507 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Olentzerok laguntza berezia izango du aurten ere gutun guztiak batzeko

Txoronpia eta Txoropioekin batera Basandere irtengo da bihar goizean; ikazkina 18:15ean helduko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Heltzean da urteko gaurik bereziena. Olentzero bihar jaitsiko da herrira, 18:15ean. San Andrestitik sartuko da Arrasatera, eta Maiatzaren Lehena plaza, Garibai, Maala, Portaloia eta Erdiko kalea zeharkatuko ditu kalejiran, Herriko Plazan bukatuta. Aurten ere kalejiran zehar banatuko diren gozokiak zeliakoek ere jan ahalko dituzte, eta umeen eskaerak batzeko urteroko laguntzaile bereziak izango ditu ikazkin maitatuenak: Txoronpia eta Txoropio.

Eta eurekin batera Basandere ere egongo da aurten gutunak jasotzen; bihar, 11:40an, Munar, Uribe, San Andres, Zigorrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte gutunok eta 13:15ean Seber Altube plazan egongo dira –eguraldi txarra bada, Uarkapera joango dira–. Aldez aurretik, abenduaren 19an, Herriko Plazan ibili ziren gutunak banatzen.

Basandere, basoko andere

Baina nor da aurtengo laguntzaile berria? Nor da Basandere? Honela deskribatzen dute Komi-

siñokoeak: "Basoko anderea da. Altua da eta gizakiaren itxurako gorputza du, baina urrezko orrazi batekin apaintzen duen ilez estalita; ilea belauetara heltzen zaio. Artaldeak zaindu eta babes-ten ditu Basanderek. Ekaitza datorrean artzainek artaldea batu dezaten garrasi egiten du, eta otsoei ere ez die uzten inguratzen".

Eskuarte, Txorbela...

Urtea amaitu bitartean denetarikoko ekintzak izango dira. Gaur eta bihar, esaterako, Eskuarte taldearen artisau azoka egingo da Seber Altuben; gaur 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era egongo dira eta bihar, berriz, 11:00etatik 14:00etara.

Bestalde, Harremanek antolatuta, abenduaren 30ean Txorbela otxoteak kontzertua eskainiko du Kulturaten, 19:00etan, Mozambiqueko proiektuen gainean egongo den hitzaldiaren ostean. Abenduaren 31n ere kaleetan arituko dira kantuan (19:00). Egun berean eskainiko du Arrasate Musikalek urtea agurtzeko kontzertua, Amaia antzokian (13:00).



Olentzerori agurra Herriko Plazan, iaz. | SERGIO AZKARATE



Basandere aritu zen iaz gutunak batzen, laguntzaileekin. | S.A.

Santamasetako txapelketa amaitu da, Arrasateko pilotarien harrobi

J.B. | ARRASATE

Santamasetako pilota txapelketa finalak jokatu ziren hilaren 18an Uarkape, aurrebenjamin, benjamin eta infantil mailetan: "60 pilotari baino gehiago aritu dira eta balorazio ona egiten dugu. Irailetik egubakoitzero izan ditugu partidua Uarkapen; hori euren dako motibazio handia izaten da", dio Arrasateko Pilota Taldeko entrenatzaile Ibai Bolinagak.

Finaletako partidua 16 tantora izan ziren. Aurrebenjaminen Arriaranek Llodio menperatu zuen (16-7); benjamin mailan, Erañak Garitaonandiarri irabazi zion (16-11); alebin mailako lehen

urtekoan Abasolok Eraña menperatu zuen (16-10) eta bigarren urteko finalean Sarabiak erraz menperatu zuen Zumalde (16-8); infantil mailako lehen urtekoan Narvaezek Bengoari irabazi zion (16-10) eta bigarren urteko finalean lehia estua izan zuten Iraolak eta Zubiak (16-15).

Tenisean, Magallanes nagusi

Bestalde, santamasetako tenis txapelketan Aitor Magallanes izan zen garaile hilaren 20an jokaturako finalean; Sebastian Sierra 6-3 eta 6-4 menderatu zuen. Gaztetxo txapelketan Igor Errasti izan zen onena.



JOKIN BEREZIARTUA

Albesendako izan da lehen saria

Santamasetako erakusleho lehiaketako sari nagusia irabazi du Amaia Albes moda diseinatzaile arrasatearra: "Ez nuen inondik inora espero". 300 euro eta garaikurra irabazi ditu. Bigarren saria Altuna lurrindegiak irabazi du –250 euro eta garaikurra– eta hirugarrena, Ibai-Artek ematen duena, Otamendi harategiak –200 euro eta garaikurra–.

TAO txartel berriak lortzeko BAZetik pasatu behar da hilaren 31 baino lehen

J.B. | ARRASATE

2016ko urtarrilaren 2tik aurrera, aparkatzeko txartel berria beharko dute TAO guneetan bizi diren arrasatearrek. Txartel berria eskuratzeko, egoiliarrek BAZetik pasatu beharko dute abenduaren 31 baino lehen; txartelak ateratzeko ordaindu beharreko tasen kopurua 2015. urteko berbera izango da.

2016rako txartelak momentuan jaso ahal izango dira BAZen, baldin eta interesatuek ordnantzan zehaztutako eskakizunak betetzen badituzte.

TAO arautzen duen udal ordenantzaren arabera, txartelak emango dira bakarrik Uribarri-Loramendi gunean, 1.1 eta 1.2 azpiguineetan. Informazio gehiagorako: 943 25 20 00.

Izotz pistarako txartelak oparitu ditu Ibai-Artek

Gaur ireki eta urtarrilaren 6a bitartean Biterin egongo den patinatze izotz pista ordu erdiz erabiltzeko txartelak oparitu ditu Ibai-Artek. 1.000 txartel oparitu dituzte euren komertzioetan erosketak egiten dituzten herritarren artean. Izotz pistaren ordutegiak Udalaren webgunean daude ikusgai.

NIRE USTEZ



IBON ARRUPE

Gora, zuhaitzak!

Euskaldunontzat zuhaitzek oso esanahi berezia dute, hain zuzen, barnean sentitzen dugun bizitzaren magia eta misterioa sinbolizatzen dutelako. Batetik, sustraiak ama-lurrean tinko txertatuak dituzte, eta bestetik, adarrak ortzirantz zabalduak. Mende luzeetan, gure bizi iraupenaren muina ere izan dira, jateko fruituak emanez, berotzeko, burdinola eta ontziolentzako beharrezko egurrez hornituz, edota uda sargorietan gerizpe freskagarria eskainiz. Haatik, gure arteko elkarbizitza antolatzerakoan ere, zuhaitz bat izan dugu testigu gizaldi luzeetan, gure askatasunaren sinbolo izatera heldu delarik. Beraz, ezin esan kasualitatea denik bizkaitarrak eta gipuzkoarrok ordezkatzeko gaituzten armarrietan ere zuhaitzak agertzea.

Arrasaten ere nabarmen geratu zen euskaldunok zuhaitzekiko sentitzen dugun maitasun hori. Arbolapetako Indi Gaztaina moztu beharra egon zenean egin zitzaion agurrean argi geratu zen moduan. Ondoren, Arbolapetan zein zuhaitz landatu erabakitzerakoan ere ehunka arrasatearrek parte hartu zuten bozketa bitartez, eta, oraintsu, Arrasate pasealekuan, elkargunea izateko bokazioa daukan gune berri baten zein zuhaitz jarri erabakitzeko ere ehunka arrasatearrek parte hartu dute.

Aitzitik, ezin esan dezakegu denok sentiberatasun bera dugunik zuhaitzekiko, baten batek arbola mota aukeratzeko prozesu hauek gutxietsi ere egin baititu. Nolanahi ere, garbi dago zuhaitzak gutiz bereziak direla euskaldunontzat, gure askatasunaren ikur bihurtzeraino. Iparragirrek Gernikako Arbolari buruz zioen moduan, euskaldunon artean guttiz maitatuak dira. Urtarrilaren 16an Zuhaitz Eguna ospatuko dugu Arrasaten. Animatu eta etorri denok Kurtzetxiki mendiaren magalean zuhaitz bat landatzera!

Halconbidaiak.com

Kontsulta itzazu gure bidaiak
Arrasatek irtenda 2016rako

GABON ZORIONTSUAK GUZTIOI!

Olarte 14 • Arrasate • 943 79 29 88

Inbertsioak %118 igoko dira datorren urtean udalerrian

- San Martingo etxe tutelatuek eta Eltziak hartuko dute kopuru handiena
- la 20 milioiko aurrekontua izango du Oñatik 2016an, %19 handiagoa

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatik ia 20 milioi euroko aurrekontua izango du 2016an (19.759.809 euro), aurrekoa baino %19 handiagoa. Gainera, 2015arekiko %118ko igoera izango dute inbertsioek, ia lau milioi eta erdi euro. EH Bilduko zinegotzien botoekin onartu zuen udalbatzak datorren urteko aurrekontua joan den eguneko osoko bilkuran. EAJk kontrako botoa eman zuen, jeltzaleak ez daudelako ados "Udal Gobernuaren kudeaketa ereduarekin". Bestalde, urritik aurrera kale garbiketa zerbitzua Udalaren esku egongo da.



Abenduaren 17an onartu zituzten aurrekontuak. | OIHANA ELORTZA

Kale garbiketa zerbitzua

Mikel Biain alkatea pozik agertu zen osoko bilkuraren amaieran, aurrekoa baino %19 handiagoa, urtea bukatu aurretik onartu dituztelako datorren urteko aurrekontuak. Aurrekontuak "orekatuak" dira, haren ustez: "Bi parametro nagusienak, sarrera arrunta eta gastu arrunta, parekatuta daude, eta garrantzitsua da hori. Zorpetze maila ere oso baxua da, eta, 2008tik datorren tendentziari

jarrarrituz, 2015aren bukaeran zorpetze oso baxua izango du Oñatik, historikoki baxuenetakoa".

Datorren urterako inbertsioak gorakada nabarmena izan du eta bi proiektu aipatu ditu Udal Gobernuak igoera hori arrazoitzeko: Eltzia proiektua eta San Martinen egingo dituzten etxe tutelatuek. "Aurreko urteetan landu den proiektua datorren urtean gau-

zatu da eta milioi bat euro hartuko du", azaldu du EH Bilduko bozeramaileak, Mikel Biainek.

EAJk, baina, kezka agertu du. "Aurreko urteetako inbertsioen gauzatzea ez da bi herenera heldu, eta ez dakigu datorren urtekoak ere gauzatu diren. Bestalde, inbertsioa handitzeko mailegu eskaera egin beharko

da eta horrek esan gura du defizita sortuko dela. Atez ateko sistemak urte urte sortzen duen defizitari, gainera, kale garbiketa zerbitzua Udalaren eskura pasatzeak sortuko duena gehituko zaio gero, pertsonaleko gastua handitzea ekarriko du eta horrek", adierazi zuen Miren Elgarrestak, jeltzaleen bozeramaileak. EH Bilduren ustez, baina, aukera ona da zerbitzu hori Udalak ematea. "Kalitatezko hamar lanpostu eskainiko dira, horietako bat urritasunak dituen pertsona baten dako. Gai delikatua izango da, baina saiatuko gara prozesua malgutasun osoz bideratzen", zioen Mikel Biainek.

Hiru ordu

Kale garbiketaren zerbitzuaren dako 500.000 euro gorde dira aurrekontuetan. Herribus proiektua martxan jartzeko, Atzeko kalea oinezkoendako egokitzeko, San Lorentzoko bidegorria egiteko, Santa Anako teilatua konpontzeko, Zubillaga auzoa eraberritzeko, Foruen plazako kioskoari estaldura jartzeko eta gaztelekuaren argiteria hobetzeko diru partidak ere jasota daude, besteak beste.

Ia hiru ordu iraun zuen osoko bilkurak, urteko luzeena izan zen, eta zerrendan zeuden hamar puntuetatik aurrekontuenak hartu zituen minuturik gehienak. Amaieran, Karmelo Arregiri eta familiari babesa eman zion udalbatza osoak eta ostean urte berri on opa izan zien herritarrei.

Errege kabalgata berreskuratu du aurreko herriko dendarien elkarteak

MAIDER ARREGI | OÑATI

Txandak antolatuta, aurreko Erregeen kabalgata egingo da Oñatiko kaleetan barrena urtarrilaren 5ean, martitzena. Izan ere, iaz, erregeek osoko bilkura aretoan jaso zituzten haurren eskaerak eta ez zuten kalejirarik egin. Aurreko, ordea, erdiguneko kaleak girotuko dituzte Errege magoek.

Txandako lehendakari Juan Karlos Aranburuk dio beharrezkoa zela herriko kaleak girotzeko ekintza antolatzea: "Herritarrek Bergarara, Donostiara, Legazpira... alde egiten zuten. Gure asmoa izan da berriro giroa berreskuratzea, bai tabernetan

eta baita kalean eta komertzioetan ere. Bi urteren ostean boluntario taldea sortu dugu eta Errege kabalgata egingo da Udalaren laguntzarekin".

Olentzero eta Mari Domingi

Bihar, abenduaren 24a, Olentzero eta Mari Domingi, Jose de Azpiazu Musika Eskolako kideekin eta Haitzondo kuadrillak lagunduta, kantuan etorriko dira. Otadui zuhaiztitik 17:30ean abiatuko dira herriko kaleak alaitzeko eta gaztetxoek gutunak jasotzeko asmoz. 19:00etan Udala Musika Bandak eta Musika Eskolak kontzertua eskainiko dute plazan.



MONIKA BELASTEGI

Amalur belar-denda irabazle

Zapatuan banatu zituzten erakusleho lehiaketako sariak. Amalur belar-dendak jaso du lehen saria. Amalurko nagusi Elisa Morenok oso pozik jaso du saria: 1.500 txantxi herriko dendetan gastatzeko; bigarren saria Kimu loradendarendako izan da (1.000 txantxi) eta hirugarrena Barue Interiorismoak jaso du (500 txantxi).

700 kiloko harria mugituko du Sarek hilaren 26an plazan

Oñatiko Sarek 700 kiloko harria mugituko du Foruen plazan abenduaren 26an, zapatuan, eta horretarako deia zabaldu die herritarrei, presoen eskubideen alde elkartzeko. Bide batez, urtarrilaren 9an Bilbon eta Baionan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko deia ere zabaldu gura du. Bilboko ekitaldira joateko autobusak antolatu ditu.

Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du Oñatiko Udalak

Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duen aurtengo Urrezko Bikain ziurtagiria jaso du Oñatiko Udalak Iñigo Urkulluren eskutik. "Herri euskaldun bati esker daukagu udal txer euskaldun bat; prozesu bat garatzea eskatu du udal langileekin; harro gaude sariarekin", adierazi du alkateak.

'Barbantxo' antzezlanaren ikusteko sarrerak salgai daude sarean

Logela multimedia taldeak *Barbantxo* antzezlanaren ekarriko du Oñatira abenduaren 29an. Haurrei bideratutako 3D multimedia ikuskizuna da, euskaraz. Santa Ana antzokian izango da antzezlanaren, 17:30ean, eta sarrerak dagoneko salgai daude *bibe.me* atarian, 3,50 eurotan. Lehiatilan ere salduko dituzte.

Espeleotxiki eta saguzarren bisita eta tailerra Arrikrutzen


Arrikrutzen bi ekitaldi ezberdin antolatu dituzte gazte-txoen dako. Abenduaren 27an, espeleotxiki irteera egingo dute, eta urtarrilaren 3an, saguzarren inguruko bisita eta tailerra. Bi ekintzetako plazak mugatuak dira eta komeni da tokia aurrez hartzea telefono zenbaki honetara deituz: 943 08 20 00.

Irazanek aurkezpen gala egingo du urtarrilaren 8an

Irazan antzerki guneak aurkezpen gala egingo du urtarrilaren 8an gaztelekuetan, 22:30ean. Gaztetxoek eta nagusien talde bana daude Irazan antzerki gunean, eta Eltzian duten lokalean jarduten dute. Urtarrileko *Bat edo Bip* inprobisazio gala helduen taldeak egingo du. Herritar denak gonbidatu gura dituzte.

NIRE USTEZ

MAITE IRIZAR



Denboraren zentzua

Urteari errepaso egiten ari naizen honetan konturatu naiz, eskue-tatik ihes egiten digula denborak, bizitzak. Denbora da dena eta denbora da ezer ere ez. Ez dago denbora bat, denbora bi. Agian, denbora bat bizitzaren ari gabela esan genezake. Gu izan gara, eskue-tatik ihes egiten digun horri urteak, hilabeteak, egunak, orduak, minutuak eta segunduak erantsi dizkiogunak. 365 egun, 53 aste, 12 hilabete, hainbat urte... gutxi da guztia, denborak hartu duen abiaduraz.

Urre prezioan erosten dugu denbora. Agortzen ari da. Erosen dugu zakukada bat eta itota sentitzen gara. Erosen ditugu bi, eta sentitzen gara itoago. Lan egin beharrek ebasen digu zakutik. Eta lanegunik ez dugunetan denbora aprobetxatzen saiatzeagatik hartutako konpromisoek baita ere. Denborak beterik behar duen sentipenez bizi gara. Ekintzez beterik. Ordu galduak bizitza galdu batera kondenatuko gaituztelakoan. Urduritu egiten gara zer eginik ez dugunetan. Eta ahaztu egin zaigu bizitzaren denboraz gozatzen. Ordu galduen beldurrak kondenatu gaitu. Denbora aprobetxatzearen okerreko kontzeptuak.

Ez dakigu bizitzari entzuten. Itsasertzean eseri eta olatuie so egiten. Begiak itxi, eta Gure barruarekin hitz egiten. Harri koxkor baten gainean pausatzen eta bizitza usaintzen. Iragana aztertzen eta geroa marrazten. Denbora galdua deitzen diogun horretan benetako bizitza aurkitzen.

"Ez dakigu begiak itxi eta barruarekin hitz egiten"



Lete eta Alberdi atzoko bilkuraren amaieran. | MAITE TXINTXURRETA

Alberdik errenuntzia aurkeztuta, Lete gertu dago alkatetzarako

Igor Oiarbide izango da EAJko zinegotzi berria udalbatzan urtarriletik aurrera

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Astelen iluntzean egindako ohiko osoko bilkura izan da 2015. urteko azkenengoa Bergarako Udalean, baita Juan Jesus Alberdiren ere. "Ez da nik nahi nuen" adierazi du Alberdik, eta gaineratu du balitekeela etorkizunean erabakiaz damutzea, "gogoz kontra" hartutako erabakia izan baita, bere hitzetan. Letek adierazi du "ohorea" eta aldi berean "erantzukizun" handia izango dela alkate izatea, baina gertu dagoela dio.

"Aurrerantzean ezinezkoa egiten zaidanez orain arte egin dudana bezala nire lana Udalean eta enpresa pribatuan uztartzea, alkate eta zinegotzi karguei uko egiten diet". Hala dio Juan Jesus Alberdik aurkeztutako errenuntzia oharrak. Atzo arte alkate zenak, udal korporazioari eta

herritarrei konfiantza "eskertu" zien, baita gaizki eginagatik kalte eta sentitu direnei barkamena eskatu ere. Hunkituta azaldu zen Alberdi, eta txaloak jaso zituen pleno aretoan bildu ziren hainbat herritarren partetik.

Horren ostean, Elena Letek hartu zuen hitza: "gu gara zuri eskerrak eman behar dizugunak", esan zuen. Bukatzeko, EH Bilduko Agurte Barrusok ere "zorte ona" opatu zion Alberdiri.

Bere lantaldearengan konfiantza duela adierazi zuen Alberdik: "taldea oso sendoa da eta Elena ere oso baliagarria da".

Ohorea eta erantzukizuna

"Ohore bat da norberaren herrian herrigintzan alkate moduan lan egitea, baina horrek ez du esan nahi erantzukizun handia ez denik", dio Elena Letek. Gaine-

ratu du erantzukizun hori bere gain hartzearen erabakia "zaila" izan dela. "Lan berri bat da niretako; Udal barruko hainbat arlo ezagutzen ditut, baina inoiz ez diet arazoei erantzun bat ikuspuntu berri honetatik eman", dio. Gaineratu du espero duela guztien artean, Udal Gobernu taldearekin zein oposizioarekin, "aurrera" egitea.

Igor Oiarbide udalbatzara

Alberdiren kargu uztearekin, EAJ alderdiko zerrendan hurrengo den Igor Oiarbide sartuko da zinegotzi gisa udalbatzan. Era berean, alkateordea Ander Alberdi izango da, eta bigarren alkateordea, berriz, Maite Agirre. Udal gobernua osatzen laugarrena Lander Arregi izango da, eta bosgarrena PSEko Mari Carmen Barrenetxea, orain arte bezala.

Jasotako babes eskertu dute Agorrosinen %20EZ plataformatik

Igoeraren aurkako ia 2.000 sinadura batu dituzte

M.T. | BERGARA

Begarako Udalak 2016tik aurrera Agorrosingo erabiltzaileentzako kuota %20an igoko zituela iragarri zutenean, erabaki horri aurre egiteko sortu zen Agorrosinen %20EZ herri plataforma. Ekintzarik deigarrien artean, egin duten sinadura bilketa dago. "Hiru astez bakarrik izan genituen sinadura zerrendak kalean, eta ia 2000 lortu ditugu", dio plataformako kide Iban Biagak.

Atzo arratsaldean orain arte egindako guztia azaltzeko agerraldia egin zuten plataformakoek Irizar jauregian. Plataformatik

"bihotzez" eskertu dute Bergarako herritarrengandik jasotako babes eta inplikazioa.

Atzera bueltarik ez

Abenduaren 11ko ezohiko osoko bilkuran tasen %20ko igoera onartu zuten; honen bueltan, "atzera bueltarik ez diogu ikusten inondik inora", adierazi du Biagak.

Udal Gobernuaren eta "gehienbat alkatearen" jarrera ez da egokia izan haien ustez. Aipatutako osoko bilkuran Biagak mikrofonoa hartu zuen plataformaren izenean; "pareta baten kontra nenbilela zirudien", adierazi du.

Simon Arrietaren omenezko mostra Aroztegi aretoan

M.T. | BERGARA

Azaroan inauguratu zuten eta abenduaren 20ra arte egon da ikusgai Barrenkaleko Aroztegi aretoan Simon Arrietaren erakusketa antologikoa, haren hainbat obra biltzen zituena.

Margolari bergarar famatuaren jaiotzaren 100. urreneko ospakizun ekimenekin jarraituz, orain, bihartik aurrera -abenduak 24-, Beart elkarteko margolarien koadro eta lan desberdinez osatuta, haren omenezko erakusketa jarriko dute. Gabonetan, urtarriaren 10era bitartean ikusgai egongo da.

Neguko solstizioarako egitarau betea prestatu dute kartzela zaharrean

M.T. | BERGARA

Urtero bezala, gabonak ekintzaz beteta datoz gaztetxera: taile-rrak, kontzertuak, karaokea...

Asanbladatik jendea animatu dute barrako txandak betetzera. Izena emateko: bergarakogaztetxea@gmail.com

NEGUKO SOLSTIZIOKO EGITARAUA

ABENDUAK 23

18:00 *Gure kabuz ala hil* dokumentalaren aurkezpena.

20:30 Afaria.

22:00 Kontzertua: *Pobresiak*.

ABENDUAK 24

00:00 Beltzak Bros DJa + Mojitoak.

ABENDUAK 25

22:30 Alopecia en la Lengua.

ABENDUAK 26

23:00 Bertso finala

ABENDUAK 27

17:00 Jostun tailerra.

ABENDUAK 30

Haurren eguna: buruhandiak, bazkaria, munduko jolasak...

ABENDUAK 31

00:30 Bertsio gaua eta karaokea.

URTARRILAK 2

09:00 Mendi irteera: Arranoaitz.

URTARRILAK 3

16:30 Sukaldaritza begetariano tailerra.

URTARRILAK 5

23:00 Kontzertuak: Petrol Bombs+Dockis Murphis.

Herritarrak kantura atera nahi dituzte abenduaren 30ean egingo duten Demasa Kantuan ekimenean

2016ko Kilometroen ekimenean baita, Demasa Kantuan antolatuta dute hilaren 30erako. Herriko hainbat talde gonbidatu dituzte, baina bergarar guztiendako zabalik da. Musikariekin lagunduta, euskal kanta tradizionalak eta berriagoak kantatuko dira kalean. 19:00etatik 20:00etara bitartean egingo da kantu bira. San Martin plazan hasi eta Irala kalean eta Simon Arrieta plazan.

Urtarrilaren 7a da 24. Amodiozko Gutunen Lehiaketan parte hartzeko azkenengo eguna

2001ean edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte, eta urtarrilaren 7a izango da lanak jasotzeko azken eguna. Lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz izan beharko dute. Gutun forman aurkeztu beharko dira lanak; eskuz zein ordenagailuz idatzita egon daitezke, eta posta arruntez edo posta elektronikoz bidali daitezke Jardun elkartera. Oinarri guztiak www.jardun.eus webgunean daude irakurgai.

Egitarau berezia prestatu dute Xabaloten: txokolate-jana, zazpiko futbola, argazkilaritza...

Abenduaren 23an, Olentzeroren opariak irekiko dituzte. 26an, zazpiko futbol txapelketa egingo dute Agorrosinen; 27an, txokolate-jana txurroekin; 28an eta 29an, Labegarrietako PIN gabon parkean izango dira; 30ean, Oñatin, bailarako gaztelekuen topaketak; urtarrilaren 2a eta 4a bitartean, *Instant batean* Instagram meko argazki lehiaketa, eta 3an, Bilboko PINera irteera.

DRAGON ORIENTAL

Jatetxea

Janaria ere etxera eramaten dugu

Plater gustukoenak:

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekina

Etor zaitez!

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

ARETXABALETA

San Silbestre eguneko lasterketa Aretxabaletan ere bai

Abenduaren 31n, 16:00etan, hasiko da eta bost kilometro pasa ditu ibilbideak

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Urtea lasterka bukatzea ohitura bihurtu da, eta Aretxabaletan ere hala izango da aurten, hainbat herritarri esker (Udalaren laguntzarekin). Herriko kaleetan egingo dute lasterketa 16:00etan hasita, eta ibilbidea honako hau izango da: Durana kalea (Pagaldai) - Otorra - Bedarreta - Txarapea - Markole - Araba ibilbidea - Mitarte - Durana kalea (Pagaldai). Bi buelta eman beharko diote korrikalariak ibilbide horri, guztira bost kilometro pasa eginez.

Izena egunean bertan eman go da, 15:00ak eta 15:45 bitartean, Pagaldaixena lokalean (ez dago ordaindu beharrik). Eta lau modalitate zehaztu dituzte: norbanakoak, bikoteak, familiak eta kuadrillak. Bukatutakoan jatekoa eta edatekoa eskainiko dituzte. "Helburua da herritar mordera elkartzea urteko azken eguna elkarrekin ospatzeko takarradan eginez", diote antolatzaileek, eta datoren urtean denbora gehiagorekin eta "hobeto" antolatuko dutela iragarri dute.

ARETXABALETA

Kriseiluak bidaliko ditu zerura GEDk urtarrilaren 3an egingo duen 'Argitu erabakia' ekitaldian

Gure Esku Dago dinamikaren lantaldeak *Argitu erabakia* ekitaldia antolatu du. Urtarrilaren 3an, 18:30ean, izango da eta kriseiluak bidaliko dituzte zerurantz kiroldegi aurreko zelaitik. Kriseiluak hiru egunetan eskuratu ahal izango dira: abenduaren 24an (12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara) eta 26an (18:00etatik 20:30era), plazan. Eta abenduaren 31n (18:00etatik 20:00etara), Durana kalean.

ESKORIATZA

Olentzero eta Mari Domingi Apotzagan behera joango dira

I.B | ESKORIATZA

Bihar, hilaren 24an, 12:00etatik 13:00etara, Olentzeroren laguntzaileak herriko plazan izango dira haurren eskutitzak batzeko. Ondoren, herriko haurrek Gabonetako kantak abestuko dituzte, eta trikiti eskolako ikasleekin kalejira egingo da 13:00etan.

18:00etan, Olentzero eta Mari Domingi Apotzaga auzotik jaitziko dira, eta ongietorria egingo zaie herriko plazan. Ondoren, txistulari eta soinu-joleekin batera kalez kale ibiliko dira, eta herritarrek kantuz lagunduko dituzte.

Erregeen kabalgata

Urtarrilaren 5ean Meltxor, Gaspar eta Baltasar Eskoriatzan izango dira. Urtero moduan, gozokiak banatuz kabalgata egingo da, eta, amaitzean, Erregeek umeen eskutitzak jasoko dituzte herriko plazan.

Antortxeroak 17:30ean batuko dira kiroldegian, eta, bertatik abiatuta, Intxaurtxueta-Gaztañadui-Arbiñoste-Arana-herriko plaza bidea egingo dute. 18:30 aldera iritsiko dira herriko plazara eta gaztetxoek beraiekin egoteko aukera izango dute.

ARETXABALETA



Basotxoko presidentea erdian omenduak alboetan dituela. | MIRARI ALTUBE

Iriarte eta bazkide bi omendu ditu Basotxok

M.A. | ARETXABALETA

Elkartearen lehen lehendakaria izan zen Demetrio Iriarte eta haren kintako bazkide bi, Natividad Rodriguez eta Angeles Molina, omendu zituzten astelehenean, San Tomas egunez, Basotxon. Aretoa lepo beteta zela Iriarteren senideek opariak jaso zituzten, baita ohorezko bazkide izendatu zituzten bi emakumeek ere. Basotxoko kantu taldeak eta Aretxabaletako txistulariek girotu zuten ekitaldia, Iriarteren pieza bi eta beste hainbat kantu abestuta. San Tomas eguna izanik txorizo muturtxoa janda bukatu zuten ospakizuna trikitalari eta pandero-joleek girotuta.

Kontzertua gaur, Arkupen

Iriarteren omenezko ekitaldiak ez dituzte bukatu. Gaur, abenduak 23, *Bilobaren begietan* izeneko kontzertua emango du Arkupen haren biloba den Aitor Ziardegik, beste hainbat musikari lagun hartuta, Oier Sarasua, Eñaut Zubizarreta, Jasone Altuna, Aitor Bengoa eta Mikel Albistur, besteak beste. Txistua beharrez beste instrumentu batzuk erabiliko dituzte Iriartek idatzitako kantuak jotzeko, txeloa eta oboea, esaterako.

Ekitaldian, gainera, aurkeztuko dute Aretxabaletako argazki taldeak egin duen Iriarteren omenezko Interneteko ataria.

ESKORIATZA

Jose Arana zaharren egoitzak diru laguntza jasoko du Aldunditik

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak adinekoren edo desgaitasuna duten pertsonen egoitzetarako eta eguneko zentroetarako 912.000 euroko diru laguntzak emango ditu. Horixe jakinarazi du Imanol Lasak, foru gobernuko bozeramaileak.

Kopuru horretatik, 71.788,96 euro erabiliko dira Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitza egokitzeko. Lehen faseak izandako kostuaren %50 ordainduko da.

Albiste pozgarria

Zaharren egoitzan pozik hartu dute albistea. "Lehen faseko obrak eginda, bigarrena hasteko lagun-



Jose Arana zaharren egoitza. | GOIENA

tza bikaina da". Bestalde, Udalak adierazi du "ongi etorria" dela diru laguntza: "Halako proiektuak egitea errazten du."

OHARRAK

KANTUAK, OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

Gabon kantuan ibiliko dira bihar, abenduak 24, neska-mutikoak gurasoek lagun eginda kaleetan. Herriko Plazan, elkartuko dira 10:30ean. Bukatutakoan, 12:00etan, Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira plazara umeekin egon eta horien gutunak jasotzera. 18:30ean, ostera, kiroldegitik irten eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte.

BERTSO EMANALDIA

Bertsosaiak izango da zapatuan, hilak 26, Arkupen, 19:00etan (sarrera, 4 euro). Hona bertsolariak: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Julio Soto. Gai-jartzaile lanetan jardungo du Amaia Agirrek.

ABESBATZAREN GABON KONTZERTUA

Aretxabaleta Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du domekan, abenduak 27, 19:00etan, parrokan.

RODRIGUEZEN HITZALDIA

Foru Aldundiko diputatu ohi Ander Rodriguezen hitzaldia izango dute Basotxon, abenduaren 29an, 17:00etan. Hona gaia: *Gaurko errealitatea dependentzia munduan gizartearen ikuspuntutik*.

ESKORIATZA

Joseba B. Lenoir musikaria Inkernu tabernan izango da

Joseba Baleztena musikariak doako emanaldia eskainiko du Inkernu tabernan, egubakoitzean, hilaren 25ean, 22:30ean. Berako gitarrak jolea bakarka arituko da taula gainean, eta, batez ere, rock-and-roll doinuak ekarriko ditu Eskoriatzara. Esperimentazioz abiatuta, *loop*-en eta pedalen laguntzarekin, hainbat bertso joko ditu, bere abestiekin tartekatuta.

Gainera, sorpresak egongo direla adierazi du Atxorrotz Kultur Elkarteak: "Eskoriatzako ardi galdu batzuek Gabonetako kantak eta bertsoak egingo dituzte".

Udalak Gabon zoriontsuak opa dizkizue



LEINTZ GATZAGA

Auzorik auzo ibiliko dira neska-mutikoak, egutegia eta gatza opari eramanda

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Goizetik eguerdira bitartean jardungo dute Leintz Gatzagako neska-mutikoek Gabon doinuak udalerriko baserri guztietara barreiatzen. 09:30ean elkartuko dira, plazan. Han autobusa hartu, eta Olaun aldera joko dute, gero mugaraino iristeko asmoarekin. Handik Gatzagainera jarraituko dute, eta, Goierri auzoa bisitatu ondoren, erdigunean bukatuko dute Gabonetako kalejira, 14:30-15:00 bueltan elkartean bazkaria eginda. "Norbaiti goizegi iruditzen bazaio, 12:00-12:30 aldera aukera izango du gurekin bat egiteko Gatzagain inguruan", esplikatu du Aitziber Gorosabelek, Gurel elkarteko ordezkariak.

Aurten, Leintz Gatzagako trikiti eskolako trikitilariak jarriko dute musika, eta, ohiturari eutsiz, Udalak argitaratutako egutegia emango diete opari bisitan hartzen

dituztenei, eta aurten baita museoa ekoiztutako gatz pake-tetxo bana ere.

Urtarrilaren hasieran

Bestalde, Olentzero egunaz gainera, beste bi hitzordu ere izango dituzte aukeran gatzagar gazte-txoek. Batetik, urtarrilaren 2rako eta 4rako egun osoko ludoteka jardunak prestatu dituzte bertako begiraleek: 10:00etatik 18:30era. Amaia Elizagoien ipuin-kontalariaren laguntzarekin eta Garazi Orobengoa eta Ander Larrañaga begiraleekin batera, besteak beste, herrian bideo grabazio bat egingo dute urtarrilaren 2an; eta 4an, berriz, hori erakutsi. Eta urtarrilaren 5ean, 7an eta 8an, Beñat Agirreurretarekin patina-je ikastaroa izango dute, 17:00etatik 18:30ak arte, pilotalekuan. Azken hitzordu horretarako aldeztu aurretik izena eman beharra dago.

LEINTZ GATZAGA

'Apodaka' eta 'Amama' datorren martitzenean parrokan

Abenduaren 29an, martitzena, parrokan, 18:00etan, izango da Ander Larrañagak eta Aitor Alberdik prestatu duten zineforumerako hitzordua. Bi lagunek egindako *Apodaka* lana eta Asier Altuna *Kixi*-ren *Amama* filma emango dituzte. Eta antzinako proiektoreen erakusketa jarriko dute.

LEINTZ GATZAGA

Bidegiren gaineko liburua aurkeztuko dute, eguaztenean

Abenduaren 30ean, bi liburua aurkeztuko dira udalerrian: *Caso Bidegi ¿A dónde ha ido a parar el dinero?* da bata, Larraitz Ugarte diputatu ohia- ren hitzaurrea duena. Eta *Gestión a la vasca* da bigarrena. Bi liburuen egilea Igor Meltxor da eta 19:30ean egingo du idazleak berak aurkeztuena, kultura etxean.

LEINTZ GATZAGA

23 aparkaleku egokitze proiektua onartuta, diru laguntzen zain

Gatz Museora bidean dagoen aparkalekuaren bigarren fasea onartu dute

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

Urteko azkeneko osoko bilkuran landutako gaien artean, herrigunean aparkalekuak sortzeko obren gainean jardun zuen udalbatzak joan den astean.

Beste 23 aparkalekuri lekua egiteko egokituko dute ingurua, Gatz Museorako norabidean dagoen esparruan. Hain justu ere, lurra egokitu, margotu eta argiak eta loreontziak ipiniko dituzte. Edozelan ere, horrek guztiak aurrerago izan beharko du; izan ere, lehendabizi, bigarren faserako diru laguntzen zain dago Leintz Gatzagako Udala.

Horrekin batera, Dorletako Santutegiko teilatua konpontze-



Udalbatzako zinegotziak, joan den egunean | ANDER LARRAÑAGA

ko obrak ere izan zituen berbagai Udal Gobernuak. Kasu horretan ere, obrak hasita daude, eta hobia-riak aplikatzeko egindako eskaria onartu zuten.

Eta beste gai bat aipatzearen, Debagoieneko Mankomunitateak aurkeztutako Harrera Protokoloa onartu egin zuten –etorkinekin zuzendutakoa–.

ARAMAIO

Euskal Herriko ikazkin ezagunena bihar iritsiko da Aramaiora

Umeek irrikaz itxarongo diote Olentzerori; hurrengo egunetan, beste hainbat ekintza ere izango dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Gabonetako programa zabala prestatu dute. Batez ere, etxeko txikienei zuzendutako ekintzak egongo dira, baina besteok ere izango dute zer ikusi eta zer egin.

Sukaldaritza tailerra

Umeek sukaldaritza tailerra izango dute gaur, bihar eta astelehe-

nean jubilatuen lokalean –12:00etan–. 5 urtetik gorakoendako ikastaroa izango da: lapiko artean gustura ibiliko dira gustuko dituzten jakiak prestatzen.

Olentzerok ere ez du hutsik egingo aurtengoan. Bihar, eguena, 18:00etan iritsiko da Olentzero Aramaiora; ikazkinak zakua opariz beteta ekarriko du.

Alex Mendikuterren argazkiak

Zapatuan, abenduaren 26an, Alex Mendikuterren eskutik argazki proiektzioa izango da Sastiñan, 19:00etan.

Hilaren 29an, martitzena, Zurrunkarekin ipuin kontaketa izango dute liburutegian: 17:00etan, 2 eta 6 urte bitartekoek; eta 18:00etan, 7 urtetik gorakoek. Urtarrilaren 2an jolas parkea kiroldegian: 12:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era.

Brindisa eta mendi irteera

ATGak antolatuta txin-txina izango dute, urtea ondo amaitzeko; eta, Urteberri egunean, Orixole- ra mendi martxa egingo dute.

ELGETA

Udal Gobernuak, oposizioaren azken adierazpenekin arduratuta

Egia erdiak eta gezurrak esatea leporatzen diete

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udal Gobernuak hainbat azalpen eman ditu Gu Geu Elgetak egindako azken adierazpenen ondotik. "Udalak duen arazo ekonomikoa ez da zor biziari lotutakoa soilik", argitu dute. "Horren gai serioarekin, herritarrei egia erdiak eta gezurrak esatea ez da bidezkoa", gaineratu dute. Azaldu dute aparejadore ohiaren auziagatik ordaindu beharreko "dirutza" bost urteko epean ordaindu behar dela. "Gure kabuz epe horiek ezin luza ditzakegu beste mailegu bat eskatu gabe, eta Udala gehiago zorpetu gabe", esan dute. "Dirutza horri, bigarren epaiaren ondorioz ordaindu beharko duguna gehitu behar zaio. Kopuru zehatza jakinarazitakoan, Gizarte Segurantzarekin negoziatuko dugu ordainketa modua, eta, noski, Udalarentzat ordainketa modurik egokiena defendatuko dugu".

Etorkizuneko inbertsioak

EH Bildutik argitu dute Udal Gobernuak ez dituela inbertsioak gelditu: "Inbertsioei lehentasunak markatu baizik (...) Oposizioak lehentasunezko jotzen dituen inbertsioak EH Bilduk hauteskunde programan jarritakoak dira, eta isla dute aurrekontuan. Proposamenen, kantxako zorua berritzeko diru lerro bat aurreikusita dago". 2015a gerakinarekin amaitzea aurreikusten dutela esan dute EH Bildutik. "Horrek datorren urtean hainbat inbertsio egiteko aukera emango digu. Hala ere, aurrekontuak zuzena izan behar du, eta derrigorrean jaso behar ditu datorren urtean egin beharreko gastuak. Nork bere buruari tranpak egitea ez da zentzuzkoa, eta herritarrei tranpak egitea ez da bidezkoa", esan dute. Gaineratu dute ez dutela oposizioaren aldetik ez proposamenik ez emendakinik jaso.

OHARRAK

GABONETAKO AGENDA

Gaur, hilak 23, dator Olentzero Elgetara. Hurrengo egunetan Gabon kantak, haur parkea, txotxongilo ikuskizuna, umeen pilota txapelketa... Ikus Gabonetako agenda 12. orrian.

HERRIXA DANTZAN

Txertubi taldearekin domekan, hilak 27, 19:00etan, Espaloian.

BIZIKLETA SAIOAK UMEEKIN

Hilaren 28an eta 29an, 09:30etik 13:30era. Galdetu adin tartetarak.

ERRETIRATUAK

Tute eta briska txapelketak hilaren 29an, 16:00etan, Ozkarbin.

PILOTA TXAPELKETA

Bi finalak hilaren 31n, 12:00etan, Udala Pilotalekuan.

ANTZUOLA

Gabonetan haurrendako jolas parkea patioan

Urtarrilaren 4an, astelehena, herriko umeek puzgarriekin gozatzeko aukera izango dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Askotariko puzgarriak eta jolasak izango dira aurten ere Gabonetako jolas parkean, herriko txikitxoek gozameneko. Ohi bezala, eskolako patioan jarriko dute parkea goizean eta arratsaldean: 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era bitartean, hain zuzen ere.

Olentzero eta Mari Domingi

Bihar, 11:00etan, Pausokak antolatuta, kalejira egingo dute eskolako umeek. 18:30ean, San Josepetik herrira jaitsiko dira Olentzero eta Mari Domingi. Herritarrek kantuan hartuko dituzte. Plazan ekitaldi nagusia egingo dute. Txikitxoek gutunak emateko aukera izango dute.



lazgo haur jolas parkea eskolako patioan. | GOIENA

ZINEMA

Euskarazko pelikula onenaren saria irabazi du 'Urzulo'-k Bilbon

Esate baterako, "gidoiaren indarra" nabarmendu du epaimahaiak

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi espeleologia taldeak ekoiztutako eta Xanti Ugartek zuzendutako *Urzulo* pelikula saritu dute Bilbao Mendi Film Festivalen. Hain justu ere, euskarazko film onenaren saria eskuratu du. "Gidoiaren indarra, iluntasunean grabatzeak daukan zailtasuna eta Euskadiko leku ezezagunak azaleratzeko espiritua" nabarmendu ditu epaimahaiak Ugarteren lana baloratzeke orduan. "Jaialdian gure pelikula onartu izana ezustea izan zen guretzat, eta sariarekin goaz! Oso pozik gaude", esan du Xanti Ugarte zuzendariak. Zilarrezko eguzki-lorea irudikatzen duen trofeoa eta 1.000 euro irabazi dituzte. "Espeleologia taldearendako materiala erostera bideratuko dugu dirua. Oso ondo datorkigu laguntza hau", dio Ugartek.



Aloña Mendi espeleologia taldeko kideak Bilboko jaialdian. | ANDONI OLALDE

Beste jaialdi batzuetara

Bilboko jaialdian izan duten harrera kontuan hartuta, pelikula beste jaialdi batzuetara aurkeztea ez dute baztertzuten. "Esperientzia aberasgarria izan da Bilbokoa, eta egin diguten

harrera oso ona. Uste dut *Urzulo*-k badituela beste jaialdi batzuetan egoteko aukerak".

Urez betetako kobazuloa da *Urzulo*. Barruko zirrikituak erakusten ditu Ugartek, izen bereko filmean.

DANTZA

Txertubi taldearen zuzeneko musikarekin egingo dute Gabonetako Herrixa Dantzan

Hilaren 27an egingo dute, Espaloian, eta sarrera irekia izango da herritar guztiendako

M.B. | ELGETA

Herrixa Dantzan ekimeneko lagunek ez dute atsedetik hartuko Gabonetan. Herritar eta dantzazale asko oporretan egingo direla kontuan hartuta, saio berezia egingo dute: hilaren 27an, domeka, elkartuko dira Espaloian, 19:00etan.

Patxi Monterok gidatuko duen saioan ohiko dantzak izango dira protagonista: bikoteka eta bakarka egingo dute dantza. Fandangoak eta arin-arinak, jauziak, porrusaldak eta beste hainbat.

Txertubi taldea

Oraingoan, baina, zuzeneko musika izango dute lagun: Txertubi taldeak girotuko du dantza saioa. Arkaitz Minerrek, Txus Aranbu-



Herrixa Dantzan. | IMANOL SORIANO

ruk eta Amaieur Cajaravillek osatzen dute taldea. Arrabia, soinua, perkusioa eta kontrabaxua erabiliko dituzte, besteak beste.

Dantza emanaldia irekia izango da herritar guztiendako.

ARETO FUTBOLA

Areto futboleko nesken taldea sortzeko deialdia egin dute Aretxabaletak eta herriko neska talde batek

Areto futboleko jokatu gura duen neska talde batek eta Aretxabaletak talde berria sortzeko deialdia egin dute. Hilaren 31n, 16:30ean, Ibarra kiroldegian elkartuko dira proiektuari forma ematen hasteko. "Neskek lanean hasita daude. Hasi dira entrenamenduak egiten, eta UDARI laguntza eskatu diote. Gu prest gaude taldea babesteko, baina jokalarari gehiago behar dituzte", esan dute UDAko zuzendari-zako kideek. Taldea sortzeko aukera bailarako emakume guztiei luzatzeko asmoz, herri guztietan deialdiaren berri jasotzen duten kartelak ipiniko dituzte.

FUTBOLA

Bixente Etxeandiaren eta 'Txelis'-en omenezko futbol partiduak jokatu dituzte harrobiko taldeek

Gabonetako oporrak aprobetxatuz, Mondrak eta UDAk harrobiko gazteendako futbol txapelketak egingo dituzte. Hilaren 27an, domekan, 500 bat jokalarari elkartu dira *Txelis*-en omenezkoa jokatzeko. Bederatzigarren txapelketa izango da eta Mondrak 24 talde gonbidatu ditu. Mojategin futbol giroa izango da nagusi goizez eta arratsaldean. Giro berbera espero dute Ibarra futbol zelaian hilaren 26tik urtarrilaren 2ra arte. Bixente Etxeandiaren omenezko torneoan Debagoieneko futbol eskoletan dihardutenak lehiatuko dira.

SASKIBALOA

Ointxe!-ren saskibaloitxapelketan punta-puntako taldeak lehiatuko dira Mondragon Unibertsitatearekin

Ointxe!-k gazte mailako saskibaloitxapelketa egingo du hilaren 26tik 28ra: Gabonetako txapelketa, Laboral Kutxa saria izango da. Hiru egunetan sei talde lehiatuko dira. Punta-puntako sei talde. Mondragon Unibertsitatearekin batera, Salesianos Soto Piratas (Soto del Real, Madrid), Take Tolosa, San Cernin (Iruñea) eta Frantziako Jsmirepeux eta Lons Basket taldeak. Sei taldeak bi multzotan banatuko dituzte eta bi egun ez elkarren kontra jokatu dute. Emaitzen arabera, multzo bakoitzeko lehenengo biak finalerdietarako sailkatu dira, eta horietako irabazleak, finalerako.

KROSA

Antzuolako Gabonetako krosak hiru ibilbide izango ditu eta korrikalariak adinaren arabera banatuko dituzte

Gabonetan kirola sustatzeko asmoz, krosa egingo dute lehenengoz Antzuolan hilaren 26an. Hiru ibilbide zehaztu dituzte eta parte-hartzaileak adinaren arabera banatuko dira: 17:00etan txikien lasterketak egingo dituzte eta 17:45ean helduen proba. Udak Kirol Sailak herritar guztiak gonbidatu gura ditu korrika egin dezaten. Egunean bertan, lasterketa hasi baino ordu erdi lehenagora arte eman daiteke izena, irteera lekuan.

*** Txiki landiak ***
Urtarrilak 2-3-4 Arrasaten 25 urte!

Urtarrilak 2
10:30-13:30 MUSAKOLAKO IGERILEKUAN: PUZGARRIAK, JOLASAK...
17:00-20:00 UARCAPEKO PILOTALEKUAN jolas parkea:
ROKOPROMOA, taiterrak, familia txokoa, WII Gunea, Photocall, kale kanto; jolasak, ohe elastikoak, pin kontalariak, karaokea, puzgarriak, zozketak, eskulanak...

Urtarrilak 3 eta 4
11:00-14:00 / 17:00-20:00 UARCAPEKO PILOTALEKUAN eta
ARRASATEKO GAZTETXEAN jolas parkea.
URTARRILAK 4, 18:30 IKUSKIZUNA GAZTETXEAN EUSKARAREN TAUPADAK!

ARRASATEKO UDALA | guraso.eus | goiena | txatxilipurdi



Beñat Gaztelumendi, zapatuan, 2015ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala irabazita. | GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

BERTSOLARITZA

Gipuzkoako bertsolari onenak urte berriko Oñatiko saioan batuko dira

Peñagarikano, Mendiluze, Gaztelumendi, Martin, Sarriegi eta Egaña kantuan

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jokatu dela eta Gabonetako aurtengo saioa antolatzeke orduan formatu ezberdinetako aukerak izan dituztela azaldu du Iñaki Olalde, Oñatiko Bertso Eskolako kideak. "Aurtengo txapelketako finalistak ekartzea zen aztertu genuen aukera bat eta Gipuzkoako txapeldunak izan diren bertsolariak zen beste aukera bat. Aukera biak *nahastuta* osatu dugu, azkenean, kartela".

Hori horrela, belaunaldi ezberdinetako bertsolariak igoko dira urtarilaren 5ean, 22:30ean, Zubikoa kiroldegiko taularen gainera: Angel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi –zapatuan Ilunben txapela jantzi zuena– eta Alaia Martin –zapatuko finalean bigarren geratu zena–. "Maialen Lujanbio falta da, egun horretan kanpoan izango dela esan zigun; beraz, ezin oraingoan Oñatira etorri. Aspaldiko partez, Peñagarikano izango dugu gurekin. Saioak ohiko egitura izango du eta gure eskolako Mirari Sagartzazuk egingo ditu aurkezle lanak", dio Olalde.

Txokolateixan eskuragarri
Hamar eurotan eros daitezke Errege egun bezperako sarrerak, Txokolateixan –gazteendako berriz, zazpi eurotan–. Lehenago agortzen ez badira, urtarilaren 4ra bitartean izango dira han, eta egunean, leihatilan ere bai.

ANTZERKIA

Iazkoaren ordainetan, Eskoriatza epaituko dute

Manuel Muñoz kiroldegia epaitegi bilakatuko du Bagarak abenduaren 28an, 19:30ean

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA
Iazko toberaren txanponaren beste alde irudikatuko du Inuzente egunean Eskoriatzan egingo duten antzerki satirikoak. Aretxabaletaren "handikeria" salatu zuen iaz Eskoriatzak, eta oraingoan, berriz, eskoriatzarrak "iazko epaiketaren gezurretan jardun izanagatik" salatu dituzte aretxabaletarrek.

Ahinara Ibarraundi abokatuari (Ahinara Zubizarreta) egokitu zaio eskoriatzarren defentsa egitea –lehenkoz hartuko du parte Zubizarretak toberan–. Iazkotik entrenatuta dator, berriz, Ibai Zangitu, Aretxabaletako Rodolfo Zangilikuatre fiskala izango dena. Bi lagun horiek gonbidatuta, askotariko pertsonaiak antzeztuko dituzte taularen gainean izango diren

30 lagunek. Gaurko Puntua aldizkarian irakur daiteke erreportaje zabalagoa.

Sarrerak zortzi eurotan

Ohiko saltokietan eskura daitezke bosgarren toberarako sarrerak: Eskoriatzan, kiroldegian eta Hotela tabernan; Aretxabaletako Belar Meta dendan; Oñatiko Txokolateixan eta Bagarako Pol-Pol tabernan; eta *on line* ere bai, *Bibe.me* atarian.



Ezohiko osoko bilkura. | IDOIA DAVILA

MUSIKA

Juan Karlos Irizar pianistaren eta Eskoriatzako parrokiako koruaren kontzertua Zaldibar antzokian

Mundukide gobernuz kanpoko erakundea Mozambiken urteetan egiten ari den lanaren gaineko hitzaldia egingo du Beñat Artzadunek urtarilaren 4an, 19:00etan, Eskoriatzan. Proiektuaren nondik norakoak azaldu ondoren, Gabon doinuek hartuko dute antzokian lekukoa. Jesus Iriak zuzenduta, Parrokiako koruak zortzi kantu ezagun abestuko ditu Juan Karlos Irizarren piano doinuekin lagunduta. Emanaldia interesa duen guztientzako zabalik izango da eta sarrera doakoa da.

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskolak@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

URTEURRENA

Mari Carmen Mendizabal Sagastigutxia

2014ko abenduaren 30ean hil zen, 75 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 26an, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan.

Erraza izan da zu maitatzea ezinezkoa, ordea, zu ahaztea. Betirako gurekin izango zara.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2015eko abenduaren 23an.

URTEURRENA

Javier Arregi Sanz

2014ko abenduaren 16an hil zen, 76 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, abenduaren 26an, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokiaren.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko abenduaren 23an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Joan diren guztiak gure artean ditugu beti; nire partetik, animorik handiena maite dituzuenak faltan igartzen dituzuen guztioi.

Datorren urteak irribarre egiteko momentuak ematea espero dut, merezi duzue eta.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ABENDUAK
23
UMEAK
OÑATI Olentzero dator Txantxiku Ikastolara

Olentzerorekin kalejira eta Santo Tomas azoka, ikastolan, 10:30ean.

OÑATI Eraikiz sortu

Gabonetako ekintza berezia, Txaloka ludotekan, 16:45ean.

ARETXABALETA Gabonetako parkea

Ibarra kiroldegian jarriko dute Gabonetako parkea, 3 eta 12 urte bitarteko umeendako. Hona ordu-tegia: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Han izango dira puzgarriak, eskulanak, mahai-futbola, Wii jolasak, XBOX...

ARRASATE Izotz pista

Abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra arte Biterin patinatzeko izotz pista.

ARRASATE Ipuin kontaketa

17:30ean, Okendoko ludotekan, Gabonak eta Basandareren inguruko ipuin kontaketa magikoa eta Olentzeroren eskutitz bana-keta bertaratutako haurrei. 17:30ean 4-5 urte umeendako, 18:15ean 5-6 urteko umeendako eta 19:00etan 6-8 urteko umeendako.

ESKORIATZA Ludotekako ekintza bereziak

Gabonak direla eta, ekintza bereziak antolatu dituzte ludotekan. Gaurkoan, Ludotxef eguna ospatuko dute (17:00).

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

BESTELAKOAK
ELGETA Garbigune ibiltaria, Elgetan

Garbigune ibiltaria Salbador kaleko plazan izango da, 10:00etatik 21:00etara.

ARETXABALETA Gaztaina saltzailea

Aretxarte merkatarien elkarteak gonbidatuta gaztaina saltzailea izango da Mitarte kalean, 17:00etan.

OÑATI Entsegua

Oñatiko Inauteriak prestatzeko entsegua egingo dute. Oñatzek Errekaldeko sotoan duen lokalean izango da, 20:00etan.

ZINEMA
BERGARA 'Sanctuaire'

Zine-kluba. Euskal zinema. Zuzendaria: Olivier Masset-Depasse. Iraupena: 87 minutu. Benetako gertaeretan oinarritutako drama. 7 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3 euro. Zabalotegi aretoan, 20:00etan.

IKASTAROAK
ELGETA Dinamizatzailea KZgunean

Herritarrei zuzendutako aktibitate formatiboak kultura etxeko bigarren solairuan dagoen Kzgunean, 16:00etan.

KIROLA
OÑATI Oñatiko Kirol Sariak 2015

Oñatiko Kirol Sariak 2015. Sari banaketa, udaletxean, 19:00etan.

ERAKUSKETAK
ELGETA Margo erakusketa

Usoa Mendikute margolari bergararren lanak ikusgai eta salgai Elgetako Espaloia kafe antzokian urtarrilaren 6ra bitartean.

GABONETAN NON-ZER

ABENDUA 23
URTARRILA 7

DEBAGOIENA Olentzero etorriko da

Olentzero Debagoieneko umeak ikustera etorriko da Eguberri egunean, gauean opariak banatzen hasi aurretik. Umeekin egongo da eta

gutunak jasoko ditu. Kalejirak izango dira herri guztietan Olentzerori ongietorria emateko, eta herritar guztiak daude deituta. Informazio gehiagorako, ikusi HERRIAK saila.

GAZTEAK
BERGARA Dokumentala, bazkaria eta kontzertua

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 23an, *Gure kabuz ala hil* izeneko dokumentala aurkeztuko dute, 18:00etan; afaria izango dute, 20:30ean; eta Pobresiak taldearen kontzertua, 22:00etan.

AZOKAK
ARRASATE Gabonetako azoka

11:00-14:00 eta 16:30-20:30, Seber Altuben Eskuar-tean artisau azoka izango da.

MUSIKA
ARRASATE Golden Apple Quartet

20:00etan, Amaia antzokian, Golden Apple Quartet taldearen *Mundo intrépido* ikuskizuna.

ABENDUAK
24
MUSIKA
OÑATI Gabon kantak

Foruen plazan, 19:00etan. Musika Bandak eta Jose de Azpiazu musika eskolako haizeko instrumentuen ikasleek hartuko dute parte.

ERAKUSKETAK
BERGARA Beart elkartearen erakusketa, Simon Arrietaren omenez

Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30. Zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30. Igande eta jaiegunetan: 12:00-14:00. Aroztegi aretoan.

OSPAKIZUNAK
LEINTZ GATZAGA Gabon kantuen kalejira

Gurelek, Leintz Gatzagako guraso elkarteak, 09:30ean egin du hitzordua plazan. Han autobusa hartu eta Olaun aldera joko dute, gero mugaraino iristeko asmoarekin. Handik Gatzagaineran jarraituko dute, eta Goierri auzoa bisitatu ondoren, erdi-gunean bukatuko dute Gabonetako kalejira, 14:30-15:00 bueltan elkartearen bazkaria ere egingez. Norbaiti goizegi iruditzen bazaio, 12:00-12:30 aldera aukera izango du elkartearekin bat egiteko Gatzagain inguruan.

OÑATI Erretiratuen afaria

Lagun Leku elkarteak Elkartasun Afaria egingo dute euren lokalean (Eltzian).

AZOKAK
ARRASATE Gabonetako azoka

11:00-14:00 Seber Altuben, Eskuar-tean artisau azoka.

11:40 Txoronpio, Txoronpia eta Basanderek Munar, Uribe, San Andres, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzeroren gutunak.

UMEAK
ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Basandere

13:15ean, Txoronpio, Txoronpia eta Basandere Seber Altube plazan izango dira. Eguraldi txarra egingez gero, Uarkapeko Udaltalekuan.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

GAZTEAK
BERGARA DJak

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 24an, DJak izango dira, gaurditik aurrera: Beltzak Bros. Mojito gaua izango da.

NAGUSIAK
ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan

Aretxabaleako txistulari eta haurren emanaldia izango da 10:45ean, eta bingo berezia opariekin 16:45ean. Gabon gaueko afari berezia ere izango dute.

ABENDUAK
25
UMEAK
BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

GAZTEAK
BERGARA Gabonetako ekintzak

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 25ean, Alopecia en la lengua.

NAGUSIAK
ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan

Eguberri eguneko bazkari berezia izango dute GSR Debagoienako egoiliarrek.

ABENDUAK
26
BERTSOLARITZA
ARETXABALETA Bertso saioa

Bertso saioa eskainiko dute honako bertsolariak: Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Aitor Mendiluze eta Julio Soto. Gai-jartzaile lanak egingo ditu Amaia Agirrek. Lekaixoka bertso eskolaren laguntzarekin antolatu dute emanaldia. Sarrera 4 euro kostatzen da. 19:00etan hasiko da.

ANTZERKIA
BERGARA 'Azken eguzkilorea'

Umeendako antzezlan egongo da, Patata tropikala antzerki laborategiaren eskutik. Sarrera: 4 euro. Zabalotegi aretoan izango da, 18:00etan.

KIROLA
BERGARA Hiruko saskibaloia txapelketa

Abenduaren 26an: 16:00-20:00. Udaltalekuan izango da.

ARRASATE Saskibaloia

Abenduak 26, 27 eta 28an, Iturripeko kiroldegian: Gabonetako VIII. Saskibaloia Txapelketa, Ointxe taldeak antolatuta.

ARRASATE Xakea

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an, Xake elkartearen egoitzan, Jose Luis Iñarran, XV. Arrasate Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa, Xake taldeak antolatuta.

ANTZUOLA Krosa

Lehenengo Gabonetako krosa (17:00etan hasita haurrak, 17:45 helduak).

UMEAK
BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

ARETXABALETA Umeendako filma

Olentzero eta amilaren sekretua filma emango dute Zazaia aretoan, 17:00etan hasita. 7 urtetik gorakoentzako da. 111 minutu.

OÑATI Umeendako filma

El viaje de Arlo filma emango dute kultura etxeko zinema aretoan, 17:00etan. Familia osoaren dako da.

GAZTEAK
ARETXABALETA Gabonetako ekintza bereziak Gazte Lekuak

Gabonetarako, ekintza bereziak antolatu ditu Gazte Lekuak. Abenduaren 26rako, aparta pasada eta Euskal Selekzioko partidua antolatu dituzte.

BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 26an, bertso txapelketa izango da, 23:00etan.

BERGARA Gabonetako ekintzak

Xabalote gaztelekuaren eskutik Abenduaren 26an, Futbol 7 txapelketa jokatu dute Agorrosin. Gazteleku bera itxita egongo da.

MUSIKA**ARRASATE Punk, hardcore eta metal kontzertua**

Antihumano, Hartzak Blues Band eta Tres41 taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARETXABALETA 'Sicario' filma**

Zaraia aretoan, 19:30ean. Iraupena: 121 minutu. 16 urtetik gorakoendako.

OÑATI 'Paulina' filma

Kultura etxeko zinema aretoan, 22:30ean. 16 urtetik gorakoendako da.

BESTELAKOAK**OÑATI SAREren mobilizazioa**

Harria mugituko dugu leloarekin, mobilizazioa deitu du Sarek. Foruen plazan, 13:00etan.

ARRASATE Herri bazkaria

Arrasateko IMME elkarteak doako herri bazkaria emango du Mohamed profetaren jaiotza ospatzeko. Seber Altube plazan, 12:30ean.

ABENDUAK 27**MUSIKA****ARETXABALETA Gabonetako kontzertua**

Aretxabaleta Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du. Parrokian izango da emanaldia, 19:00etan.

ANTZERKIA**ESKORIATZA Umeendako antzerkia**

Hiru txerri txoak eta otsoa Glu Glu produkzioen Hiru txerri txoak eta otsoa antzerkia izango da Zaldibar antzokian. 3-9 arteko umeentzako 60 minututako saioa izango da, eta sarreak hiru eurotan erosi daitezke aurrez; kiroldegian eta Interneteko bibe.me helbidean. Zaldibar antzokia, 17:00etan.

BERGARA 'Ofelia, maite zaitut' antzezlan

Agerre teatro taldearekin. Sarra: 4 euro. Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

ERAKUSKETAK**ELGETA Eskulan erakusketa, buztin gelan**

Egilea: Alicia Gartzia. Sarrera irekia. 12:00etan.

UMEAK**OÑATI Espeleotxiki Arrikutzen**

Plaza mugatuak. Erreserba egiteko: 943 08 20 00. Ekintza hori 6 urtetik gorako umeendako da, baina haurrek heldu batek lagunduta joan beharko dute. Sarra: 12 euro.

OÑATI Umeendako filma

El viaje de Arlo filma emango dute kultura etxeko zinema aretoan, 17:00etan. Familia osoarendako modukoa da.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

ARETXABALETA Umeendako filma

Olentzero eta amilaren sekretua filma emango dute Zaraia aretoan, 17:00etan. 7 urtetik gorakoendako da. 111 minutu.

ARETXABALETA Iriarteren omenezko kontzertua

Demetrio Iriarte txistularia jaio zela ehungarren urterreneko ekitaldien barruan, haren biloba Aitor Ziardegik *Bilobaren begietan* izeneko kontzertua eskainiko du hainbat lagunekin: Oier Sarasua, Eñaut Zubizarreta, Jasone Altuna, Aitor Bengoa eta Mikel Albistur. Abenduaren 23an, eguaztana, Arkupen, 19:00etan.

**GAZTEAK****ARRASATE Gabonetako ekintza bereziak Gaztegunean**

Abenduaren 26an dira Gaztegunea irekitzekoak, eta Gabonak direla-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Izena emateko, gazte txokoetara, gazte bulegora edo Txatxilipurdira joan behar da. Abenduaren 27rako, oparigintza tailerra antolatu dute (17:00-21:00) eta baita Gasteizko izotz pistara irteera ere, 10:00etan abiatuta (10 euro).

ARETXABALETA Gabonetako ekintza bereziak Gazte Lekuak

Gabonetarako, ekintza bereziak antolatu ditu Gazte Lekuak. Abenduaren 27an, Gasteizko izotz pistara irteera izango dute. 10:00etan abiatuko dira. Prezioa: 10 euro.

BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 27an, jostun tailerra egingo dute, 17:00etan.

BERGARA Gabonetako ekintzak Xabalote gaztelekuaren eskutik

Abenduaren 27an, txokolate eta txurro-jana izango dute gaztelekuak.

KIROLA**BERGARA Hiruko saskibaloia txapelketa**

Abenduaren 27an: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00. Udal pilotalekuan izango dira partiduak.

ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol eskolen arteko txapelketa

Debagoieneko hainbat futbol eskoletako taldeak elkartuko dira Gabonetako txapelketa jokatzeko. Futbol zelaian, 09:30etan.

OÑATI Futbito txapelketa

Gabonetako Futbito Txapelketa. Euskal preso politiko eta iheslarien lagunek antolatuta. Zubikoa Kiroldegian, arratsalde eta gau partean.

ARRASATE Saskibaloia

Abenduak 26, 27 eta 28an, Iturripeko kiroldegian: Gabonetako VIII. Saskibaloia Txapelketa, Ointxe taldeak antolatuta.

ARRASATE Xakea

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an, Xake elkartearen egoitzan, Jose Luis Inarran, XV. Arrasate Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa, Xake taldeak antolatuta.

ARRASATE Futbola

Mojategin, *Txelis*-en omenezko futbol torneoa jokatu da. 500 gaztetxo elkartuko dira.

ZINEMA**ARETXABALETA 'Sicario' filma**

Zaraia aretoan, 19:30ean. Iraupena: 121 minutu. 16 urtetik gorakoendako.

OÑATI 'Paulina' filma

Kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean eta 22:30ean. 16 urtetik gorakoendako da.

ABENDUAK 28**UMEAK****ELGETA Jolasparkea**

Udal pilotalekuan. 16:00etan.

BERGARA Jolasparkea

Labegarietako kiroldegian izango da abenduaren 28an eta 29an. Egun bakarreko sarrera 3 euro da, eta bi eguneko, 4 euro.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

OÑATI Buztina

Gabonetako ekintza berezia. Buztinarekin jolastuko dute. Txaloka ludotekan, 10:30ean.

OÑATI 'Pan (Sekula betirako bidaia)' filma

Kultur etxeko zinema aretoan, 17:00etan.

ARRASATE Ludotekako ekintza bereziak

Gabonak direla eta, ekintza bereziak antolatu dituzte 3 eta 11 urte artekoendako. Gaurkoan, Inuxente eguna ospatuko dute (17:00-20:00).

IKUSKIZUNAK**ESKORIATZA Debagoieneko Tobera**

Debagoieneko Tobera ikuskizuna izango da kiroldegian, 19:30ean. Aurtun, Aretxabaletak Eskoriatza epaituko du. Salgai daude dagoeneko sarrerak honako leku hauean: Eskoriatza, Kiroldegia eta Azkoaga Enea Hotela; Aretxabaleta, Belar Meta denda eta Bagara; Arrasate, Ttukun kopia denda; Oñati, Txokolaterixa; Bergara, Pol-Pol taberna; Internet, <http://bibe.me> webgunean.

GAZTEAK**OÑATI Robotak, dronak, 3D inprimagailuak...**

Gazte Robotika. Teknologia berrien azoka: Robotak, dronak, 3D inprimagailuak... Kiroldegiko pilotalekuan izango da, 16:00etan hasita.

ARRASATE Gabonetako ekintza bereziak Gaztegunean

Abenduaren 26an dira Gaztegunea irekitzekoak, eta Gabonak direla-eta, hainbat ekintza antolatu dituzte. Izena emateko, gazte txokoetara, gazte bulegora edo Txatxilipurdira joan behar da. Abenduaren 28rako, Sustraiabarri tailerra antolatu dute.

ARETXABALETA Gabonetako ekintza bereziak Gazte Lekuak

Gabonetarako, ekintza bereziak antolatu ditu Gazte Lekuak. Abenduaren 28an, gazte bazkaria eta Sustraiabarri tailerra izango dituzte.

BERGARA Gabonetako ekintzak Xabalote gaztelekuaren eskutik

Abenduaren 28an eta 29an, Bergarako PINean izango dira eta gaztelekuak itxita egongo da.

IRTEERAK**OÑATI Aurrekomendira irteera**

Ibilaldi tematikoa. Aurrekomendira irteera. Bisitatuko dituzte: Antzuelas Goitia, Eskola zaharra, Lizargarate, Askazubiko lehengo tresnen erakusketa eta abar. Norberak bere hamaiketako eraman behar du. Foruen plazan elkartuko dira, 08:30ean.

MUSIKA**OÑATI Gabon kantak**

Gabon kantak Jose de Azpiazu musika eskolako triki-akordeoi eta pandero ikasleen eskutik. Eguneko Zentroan, 11:00etan.

OÑATI Txuleton's

Txuleton's taldeak kontzertua egingo du Antixeneko Gazte-txean, 21:00etan.

KIROLA**ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol eskolen arteko txapelketa**

Debagoieneko hainbat futbol eskoletako taldeak elkartuko dira. Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.

OÑATI Futbito txapelketa

Gabonetako Futbito Txapelketa. Euskal preso politiko eta iheslarien lagunek antolatuta. Zubikoa Kiroldegian, arratsaldez.

ARRASATE Saskibaloia

Abenduak 26, 27 eta 28an, Iturripeko kiroldegian: Gabonetako VIII. Saskibaloia Txapelketa, Ointxe taldeak antolatuta.

ARRASATE Xakea

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an, Xake elkartearen egoitzan, Jose Luis Inarran, XV. Arrasate Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa, Xake taldeak antolatuta.

OÑATI Pilota

Pilota eskolak, herri mailako Gabonetako kopa jokatu da. 28an eta 29an ligaxka jokatu dute; 30ean, finalerdia, eta 31n, finala. Herri mailako hori GEPE elkarteak antolatu du.

BERGARA Futbola

Bergara Gabonetako Jubenil Txapelketa antolatu dute. Honako partiduak jokatu dira: abenduaren 28an, astelehena, Mondragon CF-Eibar SAD, Ipintzan, 16:00etan; eta Bergara KE-Real Sociedad SAD, Ipintzen ere, 18:00etan. Finala abenduaren 29an, martitzena, jokatu da, Agorrosinen, 16:00etan. >

**OÑATI Herria ezagutzeko umeendako jinkana**

Turismo bulegoak eta Txandak elkarlanean antolatuta, jinkanan parte hartzeko aukera

izango dute herriko umeek. Oñatiko turismo bulegoan elkartuko dira urtarrilaren 5ean, 11:00etan.

NAGUSIAK

ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan

Abenduaren 28tik 31ra bitartean, urtean zehar ateratako argazkiak erakutsiko dituzte bilera gelan.

ZINEMA

ARETXABALETA 'Sicario' filma

Zaraia aretoan, 16:00etan. Iraupena: 121 minutu. 16 urtetik gorakoentzako.

OÑATI 'Paulina' filma

Kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean. 16 urtetik gorakoentzako da. Gaur, astelehena, Ikuslearen Eguna da.

ARENBUAK
29

ANTZERKIA

OÑATI 'Barbantxo'

Haurrendako ED antzerki multimedia. Sarrera, 3,5 euro. Santa Ana antzokian, 17:30ean.

BERGARA 'Zu eta ni sudurluze bi' antzezlan

Kurkuxetan kultur elkartearen eskutik. 4 eta 11 urte artekoentzako antzezlan da. Sarrera: 4 euro. 18:00etan.

UMEAK

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Gabonetako ur jolasak Zubikoa kiroldegian, 10:00etan.

OÑATI Talo tailerra

Gabonetako ekintza berezia Txaloka ludotekan, 10:30ean.

ARRASATE Ludotekako ekintza bereziak

Gabonak direla eta, ekintza bereziak antolatuta dituzte 3 eta 11 urte artekoentzako. Gaurkoan, Ludotxef eguna ospatuko dute (17:00-20:00).

BERGARA Jolasparkea

Labegaraietako kiroldegian izango da abenduaren 28an eta 29an. Egun bakarreko sarrera 3 euro da, eta bi egunekoa, 4 euro.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

GAZTEAK

ARRASATE Gabonetako ekintza bereziak Gaztegunean

Abenduaren 26an dira Gaztegunea irekitzekoak, eta Gabonak direla-eta, hainbat ekintza antolatuta dituzte. Izena emateko, gazte txokoetara, gazte bulegora edo Txatxilipurdira joan behar da. Abenduaren 29rako, urteko azken gazte afaria antolatuta dute (18:00-22:00). Baita Iturgutxira paintball irteera ere. 10:00etan abiatuko da. Prezioa: 15 euro.

NAGUSIAK

ELGETA Erretiratuek, tute eta briska txapelketa

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak antolatuta, herri mailako tute eta briska txapelketa jokatu da. Irabazleentzako opariak egongo dira. 16:00etan hasiko dira partidak.

OÑATI Bingo

Lagun Leku elkarteak (Eltzian) bingo berezia egingo dute erretiratuendako, 17:00-19:00 orduetartean.

ELGETA Herrixa Dantzan

Txertubi taldearekin -Arkaitz Miner, Txus Aranburu, Amaur Cajaraville eta Patxi Montero dira- Gabonetako Herrixa Dantzan dantzaldi berezia antolatuta dute. Abenduaren 27an, domeka, izango da, Espaloia kafe antzokian, 19:00etan hasita. Sarrera doakoa izango da, eta parte-hartzea, librea. Udalak lagundutako ekintza da.

**ARETXABALETA** Piano kontzertua GSR Debagoiena egoitzan

Piano kontzertua eskainiko du Carles Perezek. Musikari eta musikoterapeuta da. Herritar guztiondako dago irekita kontzertu hori. 11:00etan izango da.

ZINEMA

LEINTZ GATZAGA 'Apodaka' eta 'Amama' filmak

Parrokian, 18:00etan, izango da Ander Larrañagak eta Aitor Alberdik prestatu duten zineforumerako hitzordua. Bi lagunek egindako *Apodaka* lana eta Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararraren *Amama* filma emango dituzte. Eta antzinako proiektoreen erakusketa jarriko dute.

KIROLA

ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol eskolen arteko txapelketa

Debagoieneko hainbat futbol eskoletako taldeak elkartuko dira Bixente Etxeandia txapelketan. Ibarra futbol zelaian, 15:00etan.

ARRASATE Xakea

Abenduaren 26, 27, 28 eta 29an, Xake elkartearen egoitzan, Jose Luis Iñarran, XV. Arrasate Hiria Nazioarteko Xake Txapelketa, Xake taldeak antolatuta.

OÑATI Pilota

Pilota eskolak, herri mailako Gabonetako kopa jokatu da. 28an eta 29an ligaxka jokatu dute; 30ean, finalerdiak, eta 31n, finala. Herri mailako hori GEPE elkarteak antolatu du.

BERGARA Futbola

Bergara Gabonetako Jubenil Txapelketa antolatu dute. Honako partidua jokatu dira: abenduaren 28an, astelehena, Mondragon CF-Eibar SAD, Ipintzan, 16:00etan; eta Bergara KE-Real Sociedad SAD, Ipintzen ere, 18:00etan. Finala abenduaren 29an, martitzena, jokatu da, Agorrosinen, 16:00etan.

HITZALDIAK

ARETXABALETA Mendekotasunaren gaineko hitzaldia

17:00etan, hitzaldia Basotxo erretiratuen elkarteak. Gaia: *Gaurko errealitatea dependentsia munduan gizartearen ikuspuntutik*. Hitzlaria: Ander Rodriguez diputatu ohia.

ARENBUAK
30

IKUSKIZUNAK

ELGETA 'Circ Cabaret' txotxongilo ikuskizuna

Familia osoarendako ikuskizuna, euskaraz, Natxi Azkargorta bergararraren Txo Titelles konpainiaren eskutik. Sarrera: 6 euro, aurrez erosita 5 euro. Espaloia kafe antzokian, 18:00etan.

GAZTEAK

OÑATI GoienGazte

Debagoieneko gaztelekuak antolatuta. Topalekuan eta azoka plazan. 16:00etan. Bailarako nerabeek elkar ezagutu dezaten

eta elkarlanean ibil daitezen da helburua. 21:00ak arte izango da eta sukaldari dema eta gazte kontzertuak izango dira, besteak beste.

KIROLA

ELGETA Mendi bizikleta ikastaroa

8-12 urte bitarteko neska-mutikoentzako. Doan. Kiroldegian, 09:30ean.

OÑATI Saskibaloia

Gabonetako Koadrilen arteko Saskibaloia Txapelketa jokatu da, Aloña Mendiko Saskibaloia Sailak antolatuta. Zubikoa Kiroldegian izango dira partidua, goiz eta arratsalde.

BERGARA Pilota

Gabonetako Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte pilotalekuan (16:00-21:00).

BERGARA Hockeya

Hockey 4x4 partidua jokatu dituzte Labegaraietan (09:00-19:00).

OÑATI Pilota

Pilota eskolak, herri mailako Gabonetako kopa jokatu da. 28an eta 29an ligaxka jokatu dute; 30ean, finalerdiak, eta 31n, finala. Herri mailako hori GEPE elkarteak antolatu du.

HITZALDIAK

OÑATI 'La medida del tiempo: el secreto de los calendarios'

Hitzlaria: Esteban Esteban. Iatargi astronomia taldeak antolatutako hitzaldia da. Kultura etxean, 19:00etan.

UMEAK

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Gabonetako ur jolasak Zubikoa kiroldegian, 10:00etan hasita.

OÑATI Buztina margotu

Gabonetako ekintza berezia Txaloka ludotekan, 10:30ean.

ARRASATE Ludotekako ekintza bereziak

Gabonak direla eta, ekintza bereziak antolatuta dituzte 3 eta 11 urte artekoentzako. Gaurkoan, Arrikruzera irteera egingo dute, 09:15ean.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

BERGARA Gaztetxea

Gabonetako egitarauaren barruan, Haurren Eguna ospatuko dute abenduaren 30ean gaztetxean.

ZINEMA

BERGARA 'Gure sor lekuaren bila'

Zine-kluba. Euskal zinema. Zuzendaria: Josu Martinez. Iraupena: 75 minutu. Dokumentala. 12 urtetik gorakoentzako. Sarrera: 3 euro. Zabalotegi aretoan, 20:00etan.

NAGUSIAK

ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan

Gaztaina-jana izango dute 11:00etan, eta segidan, Arrasateko Lore Gazteak dantza taldearen emanaldia.

BESTELAKOAK

ARRASATE Harremanen ekitaldia

19:00etan, Kulturateko areto nagusian, Mozambikeko proiektuei buruzko hitzaldia eta Txorabela otxotearren kontzertua izango dira, Harremanek antolatuta.

LEINTZ GATZAGA Bidegi kasuaren

gaineko liburua
Bi liburu aurkeztuko dira kultura etxean: *Caso Bidegi ¿Adónde ha ido a parar el dinero?* da bata, Larraitz Ugarte diputatu ohiaren hitzaurrea duena. Eta *Gestión a la vasca* da bigarrena. Bi liburuen egilea Igor Meltxor da eta 19:30ean egingo du idazleak berak aurkezpena.

ARENBUAK
31

UMEAK

ARETXABALETA Bizar Zuriren etorrera

Bizar Zurik Aretxabaletako kaleak zeharkatuko ditu neska-mutikoak agurtuaz. 18:30ean hasiko da kalejira.

BERGARA Barraka

Abendu osoan zehar, barraka bat egongo da Fraiskozuri plazan, eta egubakoitzetan eta zapatuetan atrakzioak antolatzen dituzte Seminarioko patioan.

MUSIKA

ARRASATE Gabon Zaharreko kontzertua

13:00etan, Amaia antzokian, Arrasate Musikaleko musika bandaren kontzertua izango da.

ARRASATE Txorabela

19:00etan, Txorabela otxotearren kalejira.

GAZTEAK

BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Abenduaren 31n, bertsio gaua eta karaokea izango dituzte, 00:30ean hasita.

KIROLA

ELGETA Herri mailako pilota txapelketak baditu finalistak

Barikuan jokatu ziren finalerdiak, eta erabakita daude final bakoitzeko bina bikote. Beteranoetan bikote finalistak dira Iban Retolaza-Enrike Elkoro eta Mikel Elkoro-Jose Mari Zubiaurre. Gazteetan, berriz, Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxina eta Oskar Sarasua-Andoni Elortza. Finalak Urtezahar egunean jokatu dira, 12:00etan.

BERGARA San Silbestre Trail Bergara
Irteera San Martin plazan, 12:00etan. 6,5 kilometro eta 300 metroko desnibela.

**ARAMAIO** Bertso jaialdia Agirre, Egaña, Irazu eta Viñaspreekin

Gabonetako bertso jaialdi berezia antolatu dute Aramaioko bertso eskolak eta Udaleko Kultura Batzordeak. Manex Agirre, Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu Muñoa eta Iñaki Viñaspre izango dira bertsolariak. Bertso jaialdia kultur etxean izango da, 22:30ean hasita.

OÑATI Saskibaloia

Gabonetako Koadrilen arteko Saskibaloia Txapelketa, Aloña Mendiko Saskibaloia Sailak antolatuta. Zubikoa Kiroldegian, goizez.

OÑATI San Silbestre

Lasterketa: 2015 ixa 2016 San Silbestre lasterketa herrikoia. Foruen Enparantzan, 16:00etan, haurren lasterketa, eta 16:30ean, helduena.

OÑATI Pilota

Pilota eskolak, herri mailako Gabonetako kopa jokatu da. 28an eta 29an ligaxka jokatu dute; 30ean, finalerdiak, eta 31n, finala. Herri mailako hori GEPE elkarteak antolatuta du.

ESKORIATZA Silbestrada

VIII. Silbestradie eta V. Manuel Muñoz milia jokatu dira. Honako egitaraua antolatu dute: 10:30ean, haurren lasterketarako izenematea eta dortsalak margotzea; 12:00etan, haurren lasterketa hasiko da (10 urtetik beherakoek jokatu dezakete); 12:30ean, txistor-jana; 17:00etan, helduen lasterketarako izen ematea hasiko da; 17:25ean, brindisa egingo dute; 17:30ean, helduen lasterketa hasiko da. Irteera, Herriko plazan. Lasterketako azken milia norgehiagoka da; 18:00etan, luntxa emango dute parte-hartzaile guztiendako.

ARETXABALETA San Silbestre lasterketa

16:00etan hasiko da. Izenematea, Pagaldaixena lokalean, 15:00etatik 15:45era.

OSPAKIZUNAK**OÑATI Kotilloia**

Gabonzaharreko kotilloia herriko DJ gazteen eskutik. Antixeneko Gaztetxean, goizaldeko 01:00etan.

ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan

Gabon Zaharreko afari dotorea izango dute egoiliarrek.

BESTELAKOAK**ARETXABALETA Kriseiluen salmenta**

Gure Esku Dago Aretxabaletako lantaldeak *Argitu erabakia* izeneko ekimena egingo du urtarrilaren 3an, 18:30ean, kiroldegi aurreko zelaian. Helburua da Aretxabaletako zerua argitzea, kriseiluen laguntzarekin. Kriseiluok aurrez eskuratzeko hainbat postu jarriko dituzte kaleetan. Abenduaren 31n (18:00etan), Durana kalean.

URTARRILAK**NAGUSIAK****ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan**

Urte Berri eguneko bazkari berezia izango dute egoiliarrek.

URTARRILAK**KIROLA****ARETXABALETA Bixente Etxeandia futbol eskolen arteko txapelketa**

Ibarra futbol zelaian, 09:30ean. **ANTZUOLA Areto futbol** Antzuolako 24 orduko areto futbol txapelketa jokatu da.

BERGARA Kilometroak 2016 kantua

Begararrak kantuan aterako dira kalera abenduaren 30ean, Kilometroak 2016ren ekimenez. *Demasa kantuan* izena jarri diote ekimenari. Musikariekin lagunduta, euskal kanta tradizionalak eta baita berriagoak ere kantatuko dira kalean. 19:00etatik 20:00etara egingo da kantu bira, San Martin plazan hasita.



IMANOL SORIANO

UMEAK**LEINTZ GATZAGA Ludoteka jarduera berezia**

Urtarrilaren 2an eta 4an egun osoko ludoteka jarduna prestatu dute begiraleek –bazkaria barne– 10:00etatik 18:30era arte. Helburua da Amaia Elizagoien ipuin-kontalariaren laguntzarekin eta Garazi Orobengoa eta Ander Larrañaga begiraleekin batera, besteak beste, herrian bideo-grabazioa egitea eta hori erakustea.

ARRASATE Jolasparkea

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an, Gabonetako Txikilandia haurren jolasparkea izango da Uarkapen.

GAZTEAK**BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean**

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Urtarrilaren 2an, Arranoaitzera irteera egingo dute, 09:00etan.

BERGARA Gabonetako ekintzak Xabalote gaztelekuaren eskutik

Urtarrilaren 2an eta 4an, Instagramen oinarritzen den Instant Batean Gipuzkoa mailako lehiaketa baten berri emango dute eta, bestalde, sare sozialak gaizki erabiltzeak dakarren arriskuez jabetzeko tailer dinamikoak egingo dute.

URTARRILAK**KIROLA****ELGETA Pilota**

Umeen pilota txapelketa, partiduak. Hirugarren jardunaldiko partidak, udal pilotalekuan, 10:30ean.

IRTEERAK**OÑATI Saguzarrak: Ezkutuko lagunak**

Saguzarren inguruko bisita eta tailerra. Goiz pasa Arrikutzen. Plaza mugatuak. Erreserba egiteko telefonoa da: 943 08 20 00. Sarrera, 4 euro. Haurrek heldu batek lagunduta joan beharko dira.

UMEAK**OÑATI Gabonetako jolasparkea**

Goizean: 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 16:30etik 20:00etara. Zubikoa kiroldegian da. Puzgarriak, trenak, haur txokoa, ohe elastikoak eta tai-

lerrak. Sarrerak: 3 euro, egun erdia, eta 5 euro, egun osoa.

ARRASATE Jolasparkea

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an, Gabonetako Txikilandia haurren jolasparkea izango da Uarkapen.

GAZTEAK**BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean**

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Urtarrilaren 3an, sukaldaritza vegetariano tailerra izango dute 16:30ean.

BERGARA Gabonetako ekintzak Xabalote gaztelekuaren eskutik

Bilboko PINera irteera egingo dute.

BESTELAKOAK**ARETXABALETA 'Argitu erabakia' ekitaldia GEDk deituta**

Gure Esku Dago Aretxabaletako lantaldeak *Argitu erabakia* ekitaldia antolatu du, "Aretxabaletako zerua argitzeko". Ekitaldia, kiroldegi aurreko zelaian, 18:30ean.

URTARRILAK**UMEAK****LEINTZ GATZAGA Ludotekako jarduera berezia**

Urtarrilaren 2an eta 4an egun osoko ludoteka jarduna prestatu dute begiraleek –bazkaria barne– 10:00etatik 18:30era arte. Helburua da Amaia Elizagoien ipuin

-kontalariaren laguntzarekin eta Garazi Orobengoa eta Ander Larrañaga begiraleekin batera, besteak beste, herrian bideo-grabazioa egitea eta hori erakustea.

ARRASATE Jolasparkea

Urtarrilaren 2, 3 eta 4an, Gabonetako Txikilandia haurren jolasparkea izango da Uarkapen.

ANTZUOLA Jolasparkea

Haur parkea egongo da eskolako patioan. Orduetgia: 11:00-13:00 eta 16:00-19:00.

BESTELAKOAK**ESKORIATZA Mundukideren hitzaldia eta Gabonetako kontzertua**

Mundukidek Gobernu Kanpoko Erakundeak Mozambiken urteetan egiten ari den lanaren gaineko hitzaldia egingo du Beñat Artzadunek. Ondoren, Gabon doinuek hartuko dute antzokian lekukoa. Jesus Iriak zuzenduta, parrokiako koruak zortzi kantu ezagun abestuko ditu Juan Carlos Irizarren piano doinuekin lagunduta. Sarrera doakoa da. Zaldibar antzokian, 19:00etan.

URTARRILAK**BERTSOLARITZA****OÑATI Errege bezperako bertso saioa**

Gai jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola. Zubikoa kiroldegian, 22:30ean. Bertsolariak: Angel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Alaia



GOIENA

DEBAGOENA Errege Magoen kabalgata

Meltxor, Gaspar eta Baltasar, Ekialdeko Errege Magoak, Debagoienara etorriko dira urtarrilaren 5ean. Guean etxerik etxe ibili aurretik, kabalgata egingo dute bailarako herri gehienetan.

Martin eta Aitor Sarriegi. Sarre-rak, 10 euro (gaztetxoak, 7 euro) aurrez Txokolateixan salgai.

UMEAK**LEINTZ GATZAGA Patinaje ikastaroa**

Urtarrilaren 5ean, 7an eta 8an, Beñat Agirreurretarekin patinaje ikastaroa izango dute neska-mutikoeak, 17:00etatik 18:30arte, pilotalekuan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

GAZTEAK**BERGARA Gabonetako ekintzak gaztetxean**

Gabonetako ekintza bereziak antolatu ditu gaztetxeak. Urtarrilaren 5ean, Petrol Boms eta Dockis Murphis taldeen kontzertua izango da, 23:00etan.

URTARRILAK**MUSIKA****OÑATI Musika bandaren emanaldiak**

Musika bandaren kalejira izango da lehenengo, 11:00etan, eta kontzertua segidan, Santa Ana antzokian, 12:45ean.

KIROLA**ELGETA Umeen pilota txapelketa**

Finalak jokatu dira udal pilotalekuan, 11:30ean.

NAGUSIAK**ARETXABALETA Gabonetako egitaraua GSR Debagoiena egoitzan**

Errege Eguneko bazkari berezia izango dute egoiliarrek.

URTARRILAK**UMEAK****LEINTZ GATZAGA Patinaje ikastaroa**

Urtarrilaren 5ean, 7an eta 8an, Beñat Agirreurretarekin patinaje ikastaroa izango dute neska-mutikoeak, 17:00etatik 18:30arte, pilotalekuan. Aldez aurretik izena eman beharra dago.

BESTELAKOAK**OÑATI Igeriketa**

Igeriketa ikastaroak eta ur ekintzak. Gabonetako oporren ondorengo urteko lehen zerbitzu eguna. Asteburuetako ikastaroak urtarrilaren 9-10eko asteburuan hasiko dira berriro.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Mujika gozotegiko mazapanak.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-12-23

BUKATZEKO

Bertsoen bidez ongietorria umeei

- ▶ 2014an jaiotako Aretxabaletako umeei bertso bana egin diete Lekaixoka bertso eskolako kideek
- ▶ Liburuan jaso dituzte guztiak eta Arkupe kultura etxean egindako ekitaldian banatu dizkiete gurasoei

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Olentzero oraindik bidean da, baina 2014an jaiotako umetxoek opari ezin politagoa jaso dute Aretxabaletan. Lekaixoka bertso eskolako kideek bertso bana egin diete, eta norberaren argazki batekin liburuan jaso dute gero. Betiko diren opari horietako bat da, eta joan den egunean Arkupe kultura etxean egindako ekitaldian jaso zituzten gurasoek liburuok; pozik jaso ere.

Bertsoa argazkiarekin batera

"Ongietorri bertsoak dira, oroitzen polit bat izan dezaten", jakinarazi du Martin Berrizbeitiak, Lekaixokako kideak. Ekimenean parte hartzeko aurrez izena eman beharra zegoen eta 33 umeren izenak jaso zituzten urri inguruan: "Batzuk kanpoan geratu dira, baina, lehen urtea izanda, normala da", dio Berrizbeitiak. Ordutik hona lanean jardun dute fin-fin bertso eskolako kideek, bederatzi lagunak, eta bakoitzak lau bat bertso egin ditu. "Lanpetuta ibili gara, baina beste lan batzuk ere egin behar izan ditugulako, ez bakarrik bertsoak".

Seme-alaben gaineko kontuak eta bitxikeriak eskatu zizkieten gurasoei: "Informazio mordo



Gurasoak umeekin batera Arkupen, Lekaixoka bertso eskolakoek liburuak banatzeko egindako ekitaldian. | MIRARI ALTUBE



Bertso liburua. | M.A.

eman digute, eta hori guztia ezin sartu bertsoan!", dio Berrizbeitiak. Bertsoaren alboan umeren argazkia jarri dute, baita marrazki batzuk ere. Horiek Iñaki San Miguel marrazkilaria aretxabale-tarrak egin ditu, eta liburuaren diseinua ere haren ardura izan da. "Gu geu oso pozik geratu gara egindakoarekin", dio. Baita gurasoak ere: "Betiko den oparia da, eta ume horiek, gero, kuadrillan

ibiliko dira, seguru asko". Behin esku artean izanda liburuak, ekimenean parte hartu ez duen gurasoren bat edo beste izango da penatuta, baina dagoeneko ez du atzera bueltarik.

Aretxabaletako Udalaren babesa izan du proiektuak, eta gurasoek debalde jaso dute liburuak. Aurten abian jarritako ekimenak jarraipena izatea gurako lukete Lekaixoka bertso eskolako kideek.

AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



Hurrengo txanpa

Badira bost hilabete Aldundian zuzendari kargua hartu nuela. Eta betea izan da udatik honakoa: plan estrategikoa, aurrekontuak, taldea ezagutzeta, bisita andana, suterren bat edo beste itzali beharra, Batzar Nagusietako agerraldiak, elkarrizketak...

Ilusioz hartu nuen egin-kizun berria eta are ilusio handiagoaz nago gaur. Lan-kidetzarako proposamenek harrera ona izan dute, diskurtso berritua bidea egiten ari da eta, lehen urrats hauek animatuta, egin daitekeenaren lista igotzeko modua ikusten dut hurrengo txanpan.

Zein norabidetan? Bada, udalekin harremanak sakondu, teknikariekin bezala hautetsiekin, eta tokiko aktibazioa sustatu; arlo sozioekonomikoan, garapen ekonomikoa eta soziala uztartu, eta eragile-jardueran gizarte erantzukizuna txertatu, hizkuntza berdintasuna barne; 2018ko urteurrenaren baliatuta behin-goz sortu gure hitzun komunitateak behar dituen hainbat egitura estrategikoa...

Dagoeneko ikerketa larroak abian ditugu berrikuntza hori guztia oinarri sendoz egin dadin; eta, guztiaren txapel, akordio soziopolitiko bat bilatuko dugu, urrats hauek egin daitezten giro barean eta herri ikuspegiz.

Ez da ilusio handiz egoteko?

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA Bergara



Nola beste urte bat ere den joana, nostalgikorik bada malkoei emana, ahaztu etorkizuna, ahaztu iragana, ta hara hemen urte berrirako plana: gozatu une txiki bakoitzaren xarma.

Hitzak: Nahikari Gabilondo.

2016

Zorionak eta urte berri on